

AURKIBIDEA

Otsailaren 14an, HAUSTERRE EGUNA	5
Otsailaren 18an, GARIZUMAKO I. IGANDEA.....	14
Otsailaren 25ean, GARIZUMAKO II. IGANDEA.....	22
Martxoaren 3an, GARIZUMAKO III. IGANDEA	30
Martxoaren 10ean, GARIZUMAKO IV. IGANDEA	38
Martxoaren 17an, GARIZUMAKO V. IGANDEA	46
Martxoaren 24an, ERRAMU IGANDEA.....	53
Martxoaren 28an, OSTEGUN SANTUA	64
Martxoaren 29an, OSTIRAL SANTUA.....	73
SACRAMENTO DE LA RECONCILIACIÓN.....	86
ADISKIDETZE SAKRAMENTUA.....	87

GARIZUMAKO BEDEINKAPEN NAGUSIA

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Jainko Aita errukitsuak eman diezazuela guztioi,
seme hondatzaileari bezala,
aitaren etxera itzultzeko poza. ✠. Amen.

Otoitz- eta bizitza-eredu den Kristok
eraman zaitzatela, Garizumako bidetik,
egiazko bihotz-berritzera. ✠. Amen.

Jakinduria eta ahalmen Espirituak
indar zaitzatela gaiztoaren kontrako borrokan,
Kristorekin batera pazko-garaipena ospa dezazuen. ✠. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. ✠. Amen.

Otsailaren 14an **HAUSTERRE EGUNA**

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizuma hasten dugu gaurko Eukaristia honekin. Bertan hautsaren ezaugarriaren bidez gure bekatari izatea aitortuko dugu, eta Bataioaren bidea berreginez Pazkora gerturatu behar dugula onartuko dugu. Penitentzia-aldia eta Bataio-aldia badugu Garizuma, baina bereziki Pazkorako prestaera aldi dugu. Larunbat Santu gauez ospatuko dugun Pazko Gaubeila Santuari begira jartzen gara gaurtik. Han garbituko dira gaurko hautsaren bekatu-aztarnak. Han berrituko da gure Bataioko hitza. Han Kristo garaile agertuko da berriz heriotzaren gainetik bizia berrituz. Pazkoa dugu guk, hitz emandako lurra. Hara goaz, Israel-herri izaki, basamortuko bidea eginez.

Hautsaren ezaugarria egingo denez, ez da Damu-otoitzik egingo

Otoitza

Lagun iezaiozu, Jauna, kristau-herriari
barau-egun honekin benetan bihotz-berritzeko bidea hasten,
penitentziaz indarturik,
gaiztakeri espirituaren aurkako ahaleginean garaile atera dadin.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Garizumako jarrera berezia da, penitentzia eginez prestatzea. Pazkoan Kristoren heriotzaren lehenengo ondorioa: Jainkoarekin adiskidetzeari gertatuko da, horretarako prestatzen ari gara.

Lehenengo irakurgaia (Jl 2, 12-18)

Joelen profezia liburutik

Orain, honela mintzo da Jauna: «Itzul zaitezte Nigana bihotz-bihotzez, barauz, negarrez eta doluz. Urra itzazue bihotzak, ez soinekoak; itzul zaitezte Jaunagana, zeuen Jainkoagana, bihozbera eta errukitsua baita, haserregaitza eta maitasun handikoa, bere mehatxuez damutzen dena. Agian atzera egin eta damutuko da, eta bedeinkatuko zaituzte ostera, labore- eta isur-oparia eskain diezaiozuen Jaunari, zeuen Jainkoari.

Jo turuta Sionen, antolatu baraualdia, dei egin batzarrera; bildu herria batzar santura, bildu zaharrak, ekarri haurrak, baita bularrekoak ere. Atera bedi senarra ezkongelatik, emaztea ezkonohetik.

Negar egin bezate atari eta aldare bitartean apaizek, Jaunaren zerbitzariak. Esan bezate: “Barka, Jauna, barkatu zeure herriari; ez utzi lotsatan zeure ondarea, ez dezatela menderatu atzerritarrek, ez dezatela esan beste herriek: Non dute, bada, beren Jainkoa?”» Bere lurraldearekiko maiteminez bete zen Jauna eta barkatu zion bere herriari.

Erantzun-salmoa (Sal 51 [50], 3-4. 5-6ab. 12-13. 14 eta 17)

E - rru - ki, Jau - na, be - ka - tu e - gin du - gu ta.



- ∞. Erruki nitaz, ene Jainko, zeure maitasunaz,
suntsitu nire hobena zeure neurrigabeko gupidaz.
Garbi nazazu zeharo neure errutik,
garbitu neure bekatutik. ℞.
- ∞. Aitortzen dut, bai, neure hobena,
begi aurrean dut etengabe neure bekatua.
Zure aurka, zure aurka bakarrik, egin dut bekatu, ‘
zure begietan oker dena egin dut.
neure hobena beti begien aurrean baitut. ℞.
- ∞. Ene Jainko, sortu bihotz garbia nigan,
berritu arnasa sendoa nire barnean.
Ez nazazu bota zeure aurretik,
ez kendu niri zeure arnasa santua. ℞.
- ∞. Poztu nazazu berriro zeure salbamenaz,
sendo nazazu zeure arnasa oparaaz.
Ireki, Jauna, nire ezpainak,
eta nire ahoak iragarriko du zure gorespena. ℞.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 5, 20 – 6, 2)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako bigarren gutunetik

Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitzte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamina irits genezan.

Jainkoaren lankide garenez gero, eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren onginahia. Izan ere, Jainkoak dio: «Onginahi-garaian entzun dizut, eta salbamen-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da onginahi-garaia, oraintxe salbamen-eguna.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Sal* 95 [94], 8a. 7d)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

∇. Gaur, ez gogortu zuen **b**ihotza,
entzun Jaunaren **a**hotsa. ∇.

Ebanjelioa (*Mt* 6, 1-6. 16-18)

Homiliarako argibideak

Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi berri ona

Aurten ere Garizuma hasiko dugu, Pazko Hirurreneko gertaeratarako prestatzeko denbora: Jesusen nekaldia, heriotza eta piztuera ospatzeko.

Garizuma, kristauaren bizitza osoa den bezala, batez ere barne-berrikuntzako denbora bat da, aldaketa-denbora bat, gure kristau-bizipenak aztertzeko denbora bat, gure akatsak aurkitzeko, gure akats handi eta txikiak aurkitzeko, akatsak baditugula apaltasunez onartzeko eta hobetzeko behar den aldaketa lantzeko. Bakoitzak oso ondo ezagutzen du bere burua, eta badaki non dauden bere gabeziak Jainkoak eskatzen digunari dagokionez. Ezagutu ondoren, aldatzen saiatu behar du, eta hemen dago zailena, gehienetan ez garelako

ausartzen benetako bihotz-berritzea lortzeko falta zaigun urrats hori ematen. Beti geratzen zaigu gure bihotzaren zati bat, Jainkoari ematen ausartzen ez garena. Horregatik, hau ez da beste Garizuma bat, baizik eta gure Garizuma, horretan saiatuko naizelako benetan bihotz-berritzen. Errautsa buruan jartzen digutenean, esango digute «bihotz-berri zaitzte eta sinetsi berri ona», hau da, «zuga txarra dena, alda ezazu, esan behingoz, ez esan bekaturik ez duzula, ez lapurretarik ez heriotzarik eragin ez duzulako», Garizuma da hori egiteko denbora egokia.

Garizuma gure mundu zorabiagarrian, presek eta berehalakotasunak itota gauzkan munduan, martxa murriztea eta gogoeta egitea beharrezkoa dela gogoratzeko aldia da. Baraua, otoitza eta limosna aukera bat dira, beste hainbat aukera on ere bai. Beharrezkoa da ondoan dugunari begiratzea, karitatea bizitzeko. Horretarako geure buruari egoismoz begiratzeari utzi behar diogu, geure burua erdigunetik kendu eta gure erabaki guztietan hurkoa lehenik jartzeko.

Eta hori munduko xalotasun eta apaltasun osoz egin behar dugu, irakurgaiak gomendatu digutenez, ia nabaritu gabe egin behar dugu, inoren txalorik eta zorionik eskatu gabe, Jainkoak eta norberak baizik ez du jakin behar.

Berrogei egun horietan egin ditzakegun keinu txikiak, bihotz-berritzearen ezaugarri bezala gelditzen dira, lagungarri bezala. Testigantza hutsak diren keinu horiek esanahi osoa hartzen dute gure ahaleginetan, ondo egiten ez ditugun gauzak hobetzeko eta gure akatsak gainditzeko egiten dugun bihotz-berritze handi horren zeinuak direnean.

Beraz, 2024ko Garizuma Jaunak eskaintzen digun graziazko garai berri bat da, gure historian eta gure gertaeretan Bera ezagutzen jarraitzeko.

Garizumaldiaren beste ezaugarri bat da otoitz-garai izatea, hau da, Jainkoa gertu dugula aitortzeko eta bizitzeko garaia. Izan ere, ezin izango dugu nahi duguna lortu bere laguntzarik gabe, eta hori egiazko otoitz apalean eskatu behar diogu. Horregatik, Garizumari ekiteko modurik onena batak bestearen alde otoitz egitea da, gure otoitz-uneak areagotzea, parrokiak eskaintzen dizkigun uneak eta norberak antola ditzakeenak. Batak bestearengatik eskatuko dugu, eta bereziki gure arteko behartsuenen alde.

Pazko gau santuan gure bataioa berritzean, senti dezagula egiaz bihotz berria dugula, Jaunak moldatua, zaindua eta bedeinkatua.

Hautsaren ezaugarria

Apaizak, zutik eta eskuak bildurik dituela, esango du:

Senideok: egin diezaiogun otoitz Jainko Aitari, penitentziaren ezaugarri hartuko dugun errautsa bere grazia ugariz bedeinka dezan. *(Isilunea)*

Oi Jainko, damutzen dena errukiz hartzen duzu eta bihotz-berritzen dena Zeurekin adiskidetzen; entzun aita-bihotzez zeure herriaren otoitza eta isuri bedeinkapenaren + grazia errautsa hartuko duten zeure seme-alaben gainera, Garizumako bidea arretaz eginik eta gogo-bihotzak eraberriturik, zure Semearen pazko-misterioa ospatzera irits daitezten. Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Edota:

Oi Jainko, ez duzu bekatarien heriotza nahi,
bihotz-berritzea baizik;
entzun bihotz onez gure otoitzak,
eta bedeinka + ezazu buruan ezarriko diguten errauts hau;
badakigu hauts garela eta hauts bihurtuko;
emaguzu, Garizumako egintzen bidez, bekatuen barkamena, zure
Seme piztuaren antzeko biziera berria irits dezagun.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Eta ur bedeinkatuz zirtatuko ditu errautsak, ezer esan gabe.

Gero denei batera esango die esaldi hauetakoren bat:

Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona.

Edota:

Gogora zaitez hautsa zarella eta hauts bihurtuko.

Ondoren jendeari buruan ipiniko dio hautsa isilik, ezer esan gabe.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egin diezaiozun otoitz gure Jainko ahalguztidunari:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

—Eliza bere kide guztiekin eta gizaki guztiekin bihotz oneko izan dadila. Egigun otoitz. *℟*.

—Agintariek, bigarren mailako gizakirik egon ez dadila lan egin dezaten. Egigun otoitz. *℟*.

—Sufrimendua eta zatiketa bizi duten familia guztien alde. Egigun otoitz. *℟*.

—Seme-alaba garela konturatuz, elkarren senideago izan gaitezela. Egigun otoitz. *℟*.

Entzun, Jauna, gure otoitzak eta agertu zure errukia herri honengan, Garizumako egun hauetan bihotzez bila zaitzagun eta konfiantzaz itxaron. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Garizumari hasiera ospetsuki ematean,
sakrifizio hau eskaintzen dizugu, Jauna,
eta otoitz egiten: gure penitentziek eta maitasunezko egintzek
lagun diezagutela geure buruaren jabe izaten,
geure bekatuetatik garbiturik
zure Semearen nekaldia bihotzez ospa dezagun.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Hartu dugun sakramentuak, Jauna,
eragin diezagula Zuk atsegin duzun
eta guretzat osasungarri den baraua egitera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ℞. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Oi Jainko, eman bihotz onez damu-espirtua
zure aurrean apalki makurtzen diren zure seme-alabei,
damutuei Zuk agindutako saria
zure errukiari esker irits dezagun.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Bedeinka zaitzate Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. ℞. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ℞. Eskerrak Jainkoari.

Otsailaren 18an **GARIZUMAKO I. IGANDEA**

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Apaltasun keinu batekin hasi genuen Garizuma asteazkenean: errautsez egindako gurutze batekin eta Ebanjelioa sinesteko deia jasoz.

Jaunak, bere Elizaren bidez bidea egiteko deia luzatzen digu: ituna berreskuratzeke eta gure bataioa berritzeko.

Garizumako lehenengo igande honetan, Jainkoaren Erreinurako lehen urratsak ematen ditugu: damuaren urratsak, bihotz-berritze urratsak, Jainkoarekiko eta senideekiko maitasunean hazteko urratsak.

Ospa dezagun pozik eta fedez Eukaristia, Jainkoaren Hitza entzunez eta Jaunaren mahaian parte hartuz.

Damu-otoitza

Senideok: Jainkoak ez du bekatariaren heriotza nahi, baizik bihotz-berri dadila eta bizi. Ospakizun honen hasieran, jar dezagun geure uste osoa Jainko Aitagan eta dei egin diezaiogun:

—Jesus Jauna, uraren eta Espirituaren bidez / jaiotza berria eman diguzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure barruan bihotz berria sortzeko, / Espiritu Santua bidali diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, betiereko salbamena ekarri diguzuna: Erruki, Jauna.
Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik,
eraman gaitzala betiko bizira. ℞. Amen.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
egizu, Garizumako urteroko jarduerak eraman gaitzala
Kristoren misterioa hobeki ezagutzera
eta berari dagokion eran bizitzera.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren eta gizon-emakumeon arteko harremana, seme-
-alabatzakoa da, eskaintza-harremana da, askatasun-harremana.
Jainkoak era neurrigabeen bere adiskidetasuna erakusten digu
Itunaren bidez. Bera da konprometitzen lehena, guri erantzutea
tokatzen zaigu.

Lehenengo irakurgaia (*Has 9, 8-15*)

Hasiera liburutik

Egun haietan, Jaungoikoak hau esan zien Noeri eta honen semeei:
«Hara, ituna egiten dut zuekin eta zuen ondorengoekin, baita
zeuekin dituzuen bizidun guztiekin ere: hegazti, abere eta lurreko
piztiekin, ontzitik atera eta lurrean bizi diren guztiekin. Hona, zuekin
ituna eginez, ematen dizuedan hitza: ez duela uholdeak berriro
bizidunik hondatuko, ez dela aurrerantzean izango lurra suntsituko
duen uholderik».

Jainkoak esan zuen gainera: «Hau da zuekin eta zuen artean bizi diren bizidun guztiakin belaunez belaun eta betiko egiten dudan itunaren ezaugarria: neure ortzadarra ipiniko dut hodeietan, eta hura izango da lurrarekin egiten dudan itunaren ezaugarria. Nik zerua lainotzean, ortzadarra agertuko da hodeietan, eta oroituko naiz zuekin eta bizidun guztiakin dudan itunaz, eta ez da izango gehiago bizidunak suntsituko dituen uholderik».

Erantzun-salmoa (Sal 25 [24], 4-5. 6 eta 7cd. 8-9)

Lei - a - la za - ra zin - tzo - e - kin, I - tu - nagor-
de du - te - ne - kin.

- ✠. Azaldu niri, Jauna, zeure **bideak**,
erakutsi zeure **bidexkak**.
Gida nazazu zeure leialtasunean, eta **irakatsi**,
Zu baitzara nire Jainko salbat**zai**lea. ✠.
- ✠. Izan gogoan, Jauna, zeure gupida eta maitas**una**,
betidanikoak **baitira**.
Gogoratu nitaz zeure maitas**unean**,
zeure ontasunari dagokio**nez**, Jauna. ✠.
- ✠. On eta zuzen da Ja**una**,
bidea erakusten die beka**ta**riei.
Apalak zuzenbidez dara**ra**matza,
bere bidea erakusten die **ap**palei. ✠.

Bigarren irakurgaia (1 Pe 3, 18-22)

San Pedro Apostoluaren lehenengo gutunetik

Senide maiteok: Kristok heriotza jasan zuen bekatuengatik behin betiko, errugabeak errudunengatik, zuek Jainkoagana eramateko. Gizakia zenez, heriotza jasan zuen, baina bizia hartu zuen berriro Espirituagandik. Espirituaren eraginez joan zen bere mezua hots egitera giltzapetuak zeuden espirituei, garai batean sinesgogor izan zirenei; Noeren egunetan, hark ontzia egin bitartean, Jainkoa pazientziaz egon zitzaien zain; baina ontzian banaka batzuk bakarrik, zortzi lagun guztira, izan ziren uraren bidez salbatuak.

Ur hura orain zuek salbatzen zaituzten Bataioaren irudi da. Eta Bataioa ez da gorputzeko zikina garbitzea, baizik eta Jainkoari kontzientzia garbia eskatzea, Jesu Kristoren piztueraren bitartez. Jesu Kristo, zerura igo ondoren, Jainkoaren eskuinaldean dago eta menpean ditu aingeruak, aginteak eta indarrak.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Mt 4, 4b)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

℣. Gizakia ez da ogiz **bakarrik** bizi,
Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz guzti**tik** baizik. ℟.

Ebanjelioa (Mk 1, 12-15)

Homiliarako argibideak

Bihotz-berritze prozesua

1. «Espirituak bultzatua». Bere bizialdi osoan, jarduera profetiko guztietan, bere erabaki guztietan eta baita gurutzeko heriotzan ere, Espirituaren bultzadapean jardun zuen Jesusek bizia eta indarra ematen duena Jainkoa dela adieraziz.

Gure Garizumako bihotz-berritzearen abiapuntua Jainkoaren beraren ekimena da, gure bihotzean Espirituak abiarazten duena. Ez da gure sakrifizioekin zerua irabazteko grina izatea, baizik eta gure kontzientziari etengabe hitz egiten dion Espirituaren presentziak bete gaitzan uztea.

2. «Basamortuan gelditu zen berrogei egunez». Zenbaki sinbolikoa da; lan bat betetzeko edo herri hebrearra basamortuan egondako berrogei urteak gogora ekartzeko behar den denbora esan daiteke. Nolanahi ere, basamortura joan eta han egotea faraoien hiriarekin haustea da; hiri hartan boterea, edukitzea, itxura zaintzea eta gozatzea da kontua. Ez da egia gure gizarteak baliorik ez duenik; baina egia da balioen hierarkia ez dela beti elkartasunetik, errukitik, errespetutik eta ahulenei bereziki laguntzetik sortzen, baizik eta norberaren segurtasunetik, norberaren arrakastatik, edozeren eta edonoren kontura. Garizumaldiak bakoitzak geure buruarekin zintzoak izateko aukera ematen digu, eta gure jokabidea eta besteekiko harremanak zein balio-hierarkiarekin egituratzen ari garen galdetzen diogu geure buruari.

3. «Berri ona aldarrikatzea: Jainkoaren erreinua». Gutizia indibidualista nagusitu den gizartearekiko distantzia hartzen dugunean eta gure izatearen zentzuaz galdetzen dugunean –eta ni zertarako jaio nintzen?–, zalantzak eta tentaldiak iristen dira.

Basamortuan herri hebrearra tentatua izan zen eta tentaldian erori zen. Ebanjelioen arabera, Jesusek ere tentaldia jasan zuen, baina ez zuen amore eman, eta Jainkoaren erreinua eraikitzaera emana bizi izan zen erabat. Garizumak izan kristauok, Nazaretoko Jesusi begira, bataioko bokazioa berritzeko garaia izan behar du: gure erantzukizunaz jabetzeko eta gizaki guztien arteko senide-harremanen alde lan egiteko. Horrek kristauon bihotz-berritzea esan nahi du.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senide maiteok egiogun otoitz zeruko Aitari, gizaki guztientzat errukia eta bekatariontzat barkamena eskatuz:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri - e, Ky-ri - e, e - lei - son! Ky-ri - e, Ky - ri - e, e - lei - son!

- Garizumaldi honetan, Jainkoak bere fededunei gaitzaren aurka egiteko, bere okerretatik zuzentzeko eta onbidera itzultzeko behar duten indarra eman diezaiela. Egigun otoitz. ℞.
- Ondasunez oparo bizi direnek, daukatena behartsuen onerako erabiltzen jakin dezatela, eta mundu honetako ondasunetan liluratuta ez daitezela bizi. Egigun otoitz. ℞.
- Gure eskandalu eta epeltasunengatik Elizatik urrundu direnak Jainkoaren familiara itzul daitezela eta Jainkoak geure jarrera horien bekatua barka diezagula. Egigun otoitz. ℞.
- Garizumako penitentziaren bidez gure bihotzak, berriz ere, Jainkoaren hitzak fruitu oparoa emango duen lur emankorra izan daitezela. Egigun otoitz. ℞.

Errukitsua eta eraman handikoa zaren Jainko Jauna, historiaren aldi ezberdinetan Zure ituna berritzen duzu belaunaldi guztietako gizakiekin; entzun gure erreguak eta prestatu gure bihotzak Zure Seme maiteari entzuteko, penitentziazko egun hauen bidez bihotzaren egiazko berritzea iritsi eta Zurekin dugun ituna berri dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Prefazioa

Garizumako I. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 158. orrialdean.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, opari honekin hasten gara
pazko-misterioa ospatzeko prestatzen;
egizu, gure jarrera izan dadila
eskaintza honek eskatzen duenaren arabera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Hartu dugun ogi santu honek, Jauna,
sinesmena bizkortzen digu,
itxaropena sendotzen eta maitasuna indartzen;
egizu, ikas dezagula
egiazko ogi bizia den Jesusen gose izaten
eta zure ahotik ateratzen diren hitzetan bizia aurkitzen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ℞. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetze, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Etor bedi, Jauna, ugari zure bedeinkapena
zure herriaren gainera;
emaiozu estualdietan itxaropen handiagoa,
tentaldian indar sendoagoa eta betiko salbamena.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. ℞. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ℞. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordean, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).

Otsailaren 25ean
GARIZUMAKO II. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Ongietorri igandeko batzarrerara!

Kristau esperientzia sakona ospatzera bildu gara: Jaunaren presentziaren esperientzia, Jaunarekin bat egitearen esperientzia. Ba al dago hori baino handiagorik? Gure bizitza alda dezake eta pozez beteko gaitu.

Abrahamek eta Jesusek bezala Jainkoarekiko obedientzia eta fedea bizitzeko deia egiten digu gaurko liturgiak. Ospa dezagun itxaropenez beterik.

Damu-otoitza

Senideok: Bekatuak aldendu egiten gaitu Jainkoagandik eta geure anai-arrebengandik. Egin ditzagun bakeak, damuturik bekatuen barkamena eskatuz:

—Jesus Jauna, gure erruak gar**bi**itzen dituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, guran bihotz gar**bia** sortzen duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, salbamenaren poza berriro em**at**en diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

Otoitza

Oi Jainko, zeure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu;
 emaiozu gure espirituari zeure hitzaren janaria,
 gure barne-begiak argiturik, zure aintza pozez ikus dezagun.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren asmoak, ulertzen zailak dira askotan. Fedez jokatuta ordea, bedeinkapena eta ugaritasuna da Jainkoagandik jasotzen duguna. Hau barneratzeko eta ulertzeko ezin mendian ezkutatu, baizik eta egunerokotasunean saiatu behar dugu Jainkoa aurkitzen.

Lehenengo irakurgaia (*Has 22, 1-2. 9a. 10-13. 15-18*)

Hasiera liburutik

Egun haietan, Jaungoikoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta dei egin zion: «Abraham!» Eta Abrahamek: «Hemen nauzu». Eta Jainkoak: «Hartzazu Isaak zeure semea, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moriako lurraldera, eta eskainiezadazu erre-opari, Nik erakutsiko dizudan mendi gainean».

Aita-semeak Jainkoak esandako lekura iritsi zirenean, Abrahamek aldarea eraiki zuen eta egurra prestatu. Eskua luzatuz, aiztoa hartu zuen Abrahamek bere semea hiltzeko. Baina Jainkoaren aingeruak hots egin zion zerutik: «Abraham, Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Aingeruak, orduan: «Ez luzatu eskua zeure semearen gainera, ez egin ezer. Ikusi dut Jainkoari begirune diozula, ez baitiozu zeure seme bakarra bera ere ukatu».

Abrahamek begiak jaso eta ahari bat ikusi zuen adarretatik sastraka artean kateatua; hartu eta erre-oparizat eskaini zuen semearen ordez.

Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hau dio Jaunak: Ala Ni Jainkoa! Horrela jokatu duzulako, zeure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut eta zure ondorengoak zeruko izarrak eta itsasbazterreko hondarra bezain ugari egingo ditut, eta etsaien hiriez jabetuko dira. Zure ondorengoan bidez lurreko herri guztiak bedeinkatuko ditut, nire esana egin duzulako».

Erantzun-salmoa (*Sal* 116 [115], 10 eta 15. 16-17. 18-19)

I - bi - li - ko naiz zu - re au - rre - an, bi - zi di - re -
 nen lur za - ba - le - an.

- ∞. Sendo nengoen **fedean**,
 «Ni bai zoritxarreko» esatean **ere**.
 Mingarri zaio Jaunari
 bere fededunen heriotza. ∞.
- ∞. Bai, zure zerbitzari naiz, Jauna, ‘
 zure zerbitzari **eze**reza,
 askatu dituzu nire **kateak**.
 Gorespen-oparia dizut eskainiko
 eta Jaunaren izenari dei **egingo**. ∞.

∇. Beteko dizkiot Jaunari **promesak**,
herri guztiaren **aurrean**,
Jaunaren etxeko **atarian**,
Jerusalem, zure **erdian**. ∇.

Bigarren irakurgaia (Erm 8, 31b-34)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Jaungoikoa gure alde badugu, nor gure aurka? Bere Semea heriotzatik libratu ez, baizik eta gu guztion alde heriotzara eman zuenak, nola ez digu harekin batera dena dohainik emango?

Nork salatuko ditu Jainkoak aukeratutakoak, Jainkoak berak zuzentzat onartu baditu? Nork kondenatuko ditu? Jesu Kristok?, hil zenak?, piztu ere egin zenak?, Jainkoaren eskuinaldean dagoen eta gure alde otoitzean ari denak?

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. Lk 9, 35)



∇. Hodei distiratsutik Aitaren ahotsa **entzun** zen:
Hauxe da nire Seme maitea. Entzu**io**zue. ∇.

Ebanjelioa (Mk 9, 2-9)

Homiliarako argibideak

Bizitzako gatazkak lantzen ikasi

1. Giza existentzia, erabateko humanizaziorako bide gisa, une gozoz eta krisi gogorrez josia dago, maiz izaten ditugun zailtasun eta sufrimenduak direla eta. Joera normala da desatsegina zaigun edozein gai edo egoera saihestea, baina ez ditugu sekula erabat lortzen paradisu-amets horiek. Bestalde, gure bizikidetzan gatazkak sortzen direnean, gure ikuspuntua edo bizitzeko modua ezartzen saiatzen gara; eta besteak menderatu ezin baditugu, inposizioarekin eta trikimailu sotilekin ezabatzen saiatzen gara askotan.

2. Gaurko ebanjelio zatia idazterako, lehen kristau-elkartea pertsekuzioa eta ezin ulertua jasaten ari da. Lehen dizipuluak — Pedro, Santiago eta Juan elkarte osoaren ordezkari dira— tentatuta daude mundu gatazkatsu horretatik kanpora babes segurua bilatzeko: «egin ditzagun hiru denda eroso bizitzeko, guk gurutzea jasan gabe». Sektarismoa eta espiritualismo iheskorra beti izan dira eta izango dira mehatxuak kristau elkartearentzat; izan ere, elkarteen ongizateak eskatzen du munduaren zati direla jabetzea, eta munduaren poztasunak eta tristurak ere bereak direla onartzea eta bizitzea.

3. Igande honetako ebanjelioan Nazaretoko Jesus Jainkoaren Semea dela aitortzen du elkarte horrek; hodeiez inguratuta dago, Jainkoaren presentziaren sinboloa da hori; Jesu Kristo piztuaren igokundeko kontakizunean esaten da hodei batek bildu eta zerura igo zela. Bere ikasleen aurrean, Jesusek Jainkoaren aintzarekin egiten du distira: «hau nire Seme maitatua da». Baina ikasleei asko kostatzen zaie onartzea Semeak gainerakoen bidea egin behar duela, gatazkak jasan eta irainak jasotzea.

Hala ere, kristauok Mesias aitortzen dugun gizon haren berezitasuna giza existentziaren zailtasunak eta gatazkak sakon bizitzea izan zen, ez egoismoz, baizik eta denon aldeko maitasunez jokatzuz, alaitasunean eta sufrimenduan. Eta horrela adierazi zigun nor den eta nola jarduten duen Jainkoak: gure aldeko maitasun neurrigabeaz. Jesusek berak iradokitzen digun bokazioa da: «izan zaitzte erruitsuak, zeruko Aita errukitsua den bezala». Horixe da egiazko kristau-bidea. Bizitzako zailtasunak behar bezala bideratzeko bide espirituala ere bada.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok gure egintzen epaile den Aita errukitsuari eta gure bihotzen ezkutukoena ezagutzen dituen Jainkoari eta damu-espirituz eska diezaiogun entzun dezala bere herriaren otoitza:

Erantzuna: Kyrie, eleison!

Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

—Jainkoak eman diezaiela bere senideei Garizumako egun hauek egiazko penitentzia-jarreraz bizitzea eta barkamenaren sakramentua oparo ospatzeko prestatzea. Egigun otoitz. *R̄*.

—Onbidetik urrundu eta bekatuagatik hil direnak, bizi daitezela Garizuma honetan Jainkoaren Semearen ahotsa entzunez. Egigun otoitz. *R̄*.

—Ondasunak dituztenei, Jainkoak eskuzabaltasun jarrera eman diezaiela eta lurreko ondasunak denon onerako ugari ditzala. Egigun otoitz. *R̄*.

—Garizumako penitentzialdiak ondasunekiko gure gehiegizko jarrera zuzen dezala eta gure espiritua sendotuz betirako diren ondasunetara begira jarri. Egigun otoitz. *R̄*.

Zure Semea bekatarion esku utzi zenuen Jainko Aita guztiz santua, entzun gure otoitzak eta sendo gaitzazu fedearrekiko leialtasunean, Jesu Kristoren urratsei jarraituz Berarekin antzaldatuak izan gaitzen aintzazko argitan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Prefazioa

Garizumako II. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 168. orrialdean.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, eskaintza honek garbi gaitzala geure bekatutik eta santu egin ditzala zure fededunen gorputz-arimak, pazko-jaiak ospatzeko gai izan daitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Misterio aintzagarriak hartu ditugunok eskerrak ematen dizkizugu, Jauna, lur honetan gaudela ere zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinkatu, Jauna, etengabe zeure fededunak
betiereko bedeinkapenez, eta egizu,
zure Seme bakarraren Ebanjelioari atxikirik bizi daitezela,
hark Apostoluei erakutsi zien aintza
gogo biziz bilatu eta zoriontsu eskura dezaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. ✠. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ✠. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).

Martxoaren 3an
GARIZUMAKO III. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Ongietorri Aitaren etxera! Otoitz, gorespen eta esker on etxe da hau.

Garizumako hirugarren igande honetan, ederra da entzungo dugun Hitzaz; bikaina, partekatuko dugun Biziaren Ogia. Jesusen espirituaz beterik bere bakean eta maitasunean bizitzeko deia egiten zaigu. Har dezagun atsedea Jaunarengan.

Damu-otoitza

Ospakizun hau hastean, eska diezaiozun Jainkoari eman diezagula egiaz bihotz-berritzea; era honetan, adiskideturik, Jainkoarekiko eta senideekiko gure batasuna sendotuko zaigu.

- Jesus Jauna, gizadiaren salbamena gurutze-habeen **ezarri** zenuena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, guk zure urratsei jarraitzeko, / gugatik nekaldia **ja**san zenuena: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gu, bekaturako hilik, santutasunerako bizi gaitezen / gure bekatuak zeure bizkarrean habe gainera eram**an** zenituen: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eramane gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Jainko errukitsua, on guztien iturria,
 baraua, otoitza eta erruki-egintzak
 ipini dizkiguzu geure bekatuen sendabide;
 begira bihotz onez geure ahuleria aitortzen dugunoi
 eta bizkor gaitzazu zeure erruki handiaz
 bekatuaren zamapean aurkitzen garenok.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Salbamenaren historian Jainkoa gizakiengana hurbiltzen da eta askatasuna eta maitasuna eskaintzen dio bere herriari. Baiezko eta ezezko, leialtasun eta purrusta... horra gizakiaren hainbeste erantzun kontrajarriak. Jesu Kristorekin egiaz topo egiteak indartzen eta sendotzen gaitu gure fede bidean.

Lehenengo irakurgaia (*Ir* 20, 1-17) *Edota laburrago, kaxotx artekoa utzita.*

Irteera liburutik

Egun haietan, Jaunak hitz hauek esan zituen: «Ni naiz Jauna, zure Jainkoa, Egiptoko lurraldetik, esklabotzatik atera zintuena. Ez izan Ni beste jainkorik.

[Ez egin idolorik, ez irudirik, goiko zeruan, beheko lurtean edota lurpeko uretan direnetatik. Ez ahuspeztu horien aurrean, ez eman gurtzarik ere. Ni, Jauna zure Jainkoa, Jainko jeloskorra bainaiz: gorroto didaten gurasoen gaiztakeria ondorengoengan zigortzen dut, hirugarren eta laugarren gizaldiraino; baina milagarren gizaldiraino

agertzen diet errukia Ni maite nautenei eta nire aginduak gordetzen dituztenei.]

Ez erabili alferrik Jaunaren, zeure Jainkoaren, izena, Jaunak ez baitu zigorrik gabe utziko haren izena alferrik erabiltzen duenik.

Izan gogoan larunbat eguna, Jaunari sagaratzeko. [Sei egunez egingo duzu lan eta zeure eginkizun guztiak burutuko. Baina zazpigarren eguna atsedeen-eguna duzu, Jaunari, zeure Jainkoari, eskainia. Egun horretan ez duzu batere lanik egingo, ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure abereak, ezta zure herrian bizi den etorkinak ere. Zeren Jaunak sei egunean egin baitzituen zero-lurrak, itsasoa eta horietan dagoen guztia, eta zazpigarrenean atsedeen hartu baitzuen. Horregatik, bedeinkatu egin zuen Jaunak larunbata eta egun sakratutzat ezarri.]

Aintzat hartu aita-amak luzaro bizi zaitezten Jaunak zeure Jainkoak emango dizun lurraldean. Ez hil inor. Ez egin adulteriorik. Ez ostu. Ez egin gezurrezko testigantzarik lagun hurkoaren kontra.

Ez irrikatu lagun hurkoaren etxerik, ez haren emazterik, ez morroirik, ez neskamerik, ez idirik, ez astorik, ezta beste ezertxo ere».

Erantzun-salmoa (Sal 19 [18], 8-9. 10-11)



✠. Jaunaren legea bikain, barrena arnasberritzen du;
 Jaunaren manamendua fidagarri, heldugabea zuhur egiten du.
 Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren **poz**garri,
 Jaunaren aginduak distiratsu, begien argigarri. ✠.



∞. Jaunaren begirunea garbi, iraunkor **betiko**,
Jaunaren erabakiak egiazko, den-denak **bidezko**.
Urrea baino, urre araztua baino desiragarriago,
eztia, ezti berria baino gozoago. ∞.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 1, 22-25)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehen gutunetik

Senideok: Juduak ezaugarri eske dabilta eta jentilak jakinduria bila;; greziarrak, jakinduria bila; guk, berriz, Jesu Kristo gurutziltzatua predikatzen dugu, judutarrentzat onartezina eta jentilentzat zorakeria dena; baina deituentzat, judu izan ala ez, Kristo hori Jainkoaren indarra eta Jainkoaren jakinduria da. Zeren Jainkoaren zorakeria omen dena gizakiak baino jakintsuago baita, eta Jainkoaren ahuleria gizakiak baino indartsuago.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. Jn 3, 16)



Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza



∞. Hain maite izan zuen Jainkoak **mundua**,
bere Seme bakarra **eman** baitzion;
harengan sinesten duenak betiko **bizia** du. ∞.

Ebanjelioa (Jn 2, 13-25)

Homiliarako argibideak

Justiziarik gabe ez da egiazko kulturik

1. Badirudi Jesusen keinu hori historikoa izan zela. Lau ebanjelistek kontatzen dute: Joanek Jesusen misioaren hasieran eta beste ebanjelariak Jesusen heriotza gertatu aurretik. Sinoptikoen (Mateo, Markos eta Lukasen) arabera, keinu hori argudioa izan zitekeen Jesusen aurkako epaiketarako. Joan ebanjelariak, berriz, zera adierazi nahi du: benetako tenplua, Jainkoak ohorea eta aintza jasotzen dituen tokia, Jesusen jokabidea dela, gaixoak sendatzen, behartsuak defendatzen eta guztiontzako bidea irekitzen duenaren jokabidea, heriotzari garaituz bere bizia eman arte.

2. Ez da erraza jakiten zer egin zuen Jesusek tenpluan. Tenpluko goardia indartsuak eta militar erromatarren gertutasuna kontuan izanik, ezin da pentsatu Jesus iraultzaile bortitz gisa sartuko zenik. Keinua profetikoa izan zen: tenpluaren funtzionamendua bere jatorrizko inspirazioaren kontra zihoan, Jainkoak nahi zuenaren aurka. Batetik, Jerusalemgo tenpluan ezin ziren paganoak sartu; jentilen atarian otoitz egin zezaketen. Atari hura judu erlijiosoek beren diru-kanbiorako mahaiekin eta sakrifizio prestaketekin inbaditzen zuten. Bestalde, tenplua eta gurtza gizarte bidegabe baten organigrama bihurtu ziren: apaizen kastak, lur-jabe handien eskutik, tenpluan eta gurtzan pobreen kontura jardunik osatzen zuen bere ondarea. Judu guztiek ordaindu behar zioten zerga tenpluari, eta sakrifizio garestiak eskaini. Gainera, tenplutik puruen eta ez-puruen banaketa egiten zen, eta, gizarte teokratiko haren barruan, jarrera ekonomikoa bereizteko irizpideak ere ba zen hori, ez-puruek ez baitzuten errentagarritasun-postu baterako eskubiderik.

3. Den-denak neurririk gabe maite dituen aitarekin intimitatean bizi da Jesus eta guztiontzat bizia nahi du pobreen defendatzailea da. Jesusek antzeko egoeretan salatzaile gertatu ziren profetekin bat egiten du bere erantzunean: «nire etxea herri guztientzako otoitz-etxea da, eta lapurren kobazulo bihurtzen ari zarete». Tenplua eta kultua ezin dira izan pertsonak diskriminatzeko eta batzuk besteak menderatzea justifikatzeko. Joan ebanjelariaren arabera, tenplu berria eta kultu berria («espirituz eta egiaz» egindakoa) Nazareteko Jesus bera da, eta heriotzaraino bere bizia emanik biziaren betea iritsi du: «Suntsitu tenplu hau eta hiru egunetan altxatuko dut. Hildakoen artetik piztean, haren ikasleak gogoratu ziren hori esan zuela».

Jainkoaren herriaren otoitza

Basamortuan otoitzari emana bizi izan zen Jesus gure Jaunaren ereduari jarraituz, egiogun otoitz guk ere aspergabe Jainkoari:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

- Fededun guztiak, Garizumako penitentzia eta ekinaldien bidez, beren erruetatik garbituak eta kristau bizitzan sendotuak izan daitezela. Egigun otoitz. ☩.
- Herri guztiek iris dezatela beharrezko bakea baretasuna eta ongizatea, era horretan zeruko ondasunak errazago bila ditzatela. Egigun otoitz. ☩.
- Jaunak eman diezaiela, tentatuak edo minduak direnei indarra, bekatariei bihotz-berritzeko gogoia eta triste eta atsekabetuta daudenei barne-poza. Egigun otoitz. ☩.

—Jaunak bihotz-berritzeko egiazko gogoan sorraraz dezala, pazko-sakramentuak ospatzeko behar bezala presta gaitezen. Egigun otoitz. *℟*.

Zuzen itzazu, Jainko Jauna, gure bihotzak Zure esanetara eta egizu gurutzearen jakindurian barnera gaitzela, lotzen gaituen geurekoikeriatik askaturik Espiritu Santuaren dohainak iritsi ditzagun eta Zu gurtua izango zaren tenplu bizi bilaka gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Prefazioa

Garizumako I. edota II. prefazioak erabil daitezke (Meza liburua 478-480 orr.).

Oparigaien gaineko otoitza

Jaun errukitsua, sakrifizio honek irits diezagula, zure barkamena eskatzen ari garenoi, geure senideei barkatzen jakiteko grazia. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Betiko salbamenaren agiria da, Jauna, lur honetan jadanik, hartu dugun zerutar ogia; egizu, orain sakramentuz ospatu duguna egintzetan bete dezagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ℞. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Gida ezazu, Jauna, zeure fededunon bihotza
eta eman errukitsu zeure zerbitzarioi grazia hau:
Zuganako eta lagun hurkoaganako maitasunean iraunez,
zure aginduak oso-osorik betetzea.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. ℞. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. ℞. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).

Martxoaren 10ean
GARIZUMAKO IV. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Ongietorri senideok, Jaunak maitasunez prestatzen digun otordura.

Garizumako laugarren igande honetan honetara egiten zaigu dei: Jauna alaitasunez bilatzera, Berarekin bidea egitera eta Beraren testigu izatera.

Israel herria bezala, etxera itzultzeko gonbidapena jasotzen dugu, tenplua berreraiki eta gure Jainkoari aintza eta gorespen emateko gonbidapena.

Ospa dezagun pozik fedearen misterioa.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, zuzena denak, Aitarekin adiskidetzen gaitu. Ager dezagun gure bekatua eta damu-jarrera Jaunaren mahaira gerturatzeke.

—Jesus Jauna, onginahi hutsez sal**bat**zen gaituzuna: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zure graziaz aber**rast**en gaituzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurutzean Jainkoaren maitasun neurrigabea era**ku**tsi diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Oi Jainko, zure Hitzaren bidez
miragarriro adiskidetu zenituen gizon-emakumeak Zeurekin;
egizu, kristau-herria, maitasunean bero eta sinesmenean alai,
presta dadila hurbiltzen ari diren pazko-jaietarako.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Begirada batek, hitz askok baino gehiago balio duela esan ohi dugu.
Fede hitz asko esatea baino zailagoa egiten zaigu elkarri begietara
begiratzea, Kristori begiratzen ikastea. Munduari begi berriekin
begiratzea, Pazkoa itzaroteko era bikaina dugu.

Lehenengo irakurgaia (2 Kro 36, 14-16. 19-23)

Kronikak bigarren liburutik

Egun haietan, apaizburu guztiek eta herriak gaiztakeria
gaiztakeriaren gain egiten zuten, atzerritarren ohitura higuingarri
jarraituz, eta kutsatu egin zuten Jaunak Jerusalem beretzat
sagaratua zuen tenplua. Jaunak, haien arbasoen Jainkoak, oharpenak
bidali zizkien etengabe bere mezularien bidez, erruki baitzituen bere
herria eta bere egoitza. Baina haiek Jainkoaren mezulariei iseka egin,
Jainkoaren hitzak gutxietsi eta haren profetak irriz hartu zituzten.
Azkenik, Jaunak bere herriaren aurkako haserreak gainezka egin
zuen eta ez zen salbabiderik izan.

Orduan, babiloniarrek Jainkoaren etxea erre, Jerusalemgo
harresiak bota eta jauregiei su eman zieten, eta hiriko gauza eder
guztiak erabat hondatu zituzten. Ezpatari ihes egin zioten guztiak

Babiloniara eraman zituzten gatibu, eta han erregearen eta haren ondorengoen esklabo izan ziren, harik eta pertsiarren erregealdia iritsi zen arte. Horrela bete zuen Jaunak Jeremias profetaren ahoz esandakoa: «Hirurogeita hamar urtez atsedean hartuko du lurralde honek, hondamenaldiko egun guztietan, Jaunari ukatu zizkioten atsedean-urteak bete arte».

Pertsiako errege Zioren lehen-urtean, Jaunak Jeremiasen ahoz esana bete zen. Jaunak Pertsiako errege Zioren espiritua piztu eta Ziok agindu hau zabaldu zuen, hitzez eta idatziz, erreinu osoan: «Honela dio Pertsiako errege Ziok: “Lurreko erreinu guztiak eman dizkit Jaunak, zeruetako Jainkoak, eta Judako Jerusalem berari tenplua eraikitzeko agindu dit. Beraz, zuen artean haren herriko diren guztiak izan bezate beren Jainkoa lagun eta igo bitez hara”».

Erantzun-salmoa (Sal 137 [136] 1-2. 3. 4-5. 6)

Je - ru - sa - len, zu ez bes - te - rik, e - zin i - zan

nik poz - bi - de - rik.

- ∅. Babiloniako ibaiertzean eseriak geunden **ne**garrez,
Sionen **oro**ipenez.
Ur ondoko sa**ha**tsetan
utziak genituen zitarak **zint**zilik. ∅.

- ∞. Han, erbesteratu gintuztenak kantu eske genituen,
gure zapaltzaileak kanta alaien eske:
«Kanta guretzat Siongo kantak». ∞.
- ∞. Nola kantatu Jaunaren kantarik
atzerriko lurraldean?
Jerusalem, zutaz ahaztu banendi,
geldi bekit eskua elbarri. ∞.
- ∞. Itsatsi bekit mingaina ahosabaian,
zutaz oroitzen ez banaiz,
niretzat pozbiderik bikainena
Jerusalem ez bada. ∞.

Bigarren irakurgaia (*Ef 2, 4-10*)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Senideok: Errukian aberatsa den Jainkoak halako maitasun neurrigabeaz maita izan baikaitu, geure bekatuengatik hilda geundelarik, bizia eman zigun Kristorekin batean –onginahi hutsez zaudete salbatuak–, eta Kristo Jesusekin batean berpiztu gintuen eta zeruetan eserarazi. Honela, Jesu Kristogan guretzat hain ona izanez agertu nahi izan die datozen gizaldiei, zein ugaria eta eskuzabala den bere onginahia.

Onginahi hutsez salbatuak zaudete fedearen bidez; eta hori ez dator zuengandik, baizik eta Jainkoaren dohaina da; ez dator egiteetatik, inor harro ez dadin.

Izan ere, Jainkoak eginak gara; hark sortu gaitu Kristo Jesusengan, on egiten saia gaitezen, Jainkoak guretzat alde zurretik erabakia zuen bezala.

Ebanjelio-aurreko gorapena (*Jn 3, 16*)

Ain-tza Je- sus, Zu -ri be - ti. Zu za-ra gu - re ar - gi.

∞. Hain maite izan zuen Jainkoak **mundua**,
bere Seme bakarra **eman** baitzion;
harengan sinesten duenak betiko **bizia** du. R/.

Ebanjelioa (*Jn 3, 14-21*)**Homiliarako argibideak***Egiari bidea zabaldu*

1. Garizuman, predikatzaile zaharrek behin eta berriz deitzen zuten bekatarien bihotz-berritzea. Baina, zer da bekatua? San Pablok Erromako kristauei egindako gutunean hau dio: injustiarekin egia hiltzea da bekatua. Gizona eta emakumea Jainkoaren irudia dira; hori da gure egia. Hurkoa nire nahiaren arabera erabiliz tratatzen dudanean, bere egiazko irudia ukatzen ari naiz, eta nire egia ere ukatzen ari naiz, ez naizelako Jainkoa edo zentro absolutua, irudia bakarrik baizik. Hain zuzen ere, gizakiaren egiaren aurka noalako, gizakiaren duintasuna babesten eta sostengatzen duen Jainkoaren egia eta nagusitasun absolutuaren aurka ere ari naiz.

2. Horregatik, garizumako bihotz-berritzeak egiaz jokatzean egikaritu behar du, «egintza onak» egiten saiatuz: gose denari jaten emanez, gaixoak bisitatuz, gatibuak askatuz. Ebanjelioaren arabera, konpromiso horretan datza gure bizitzaren arrakasta: «gose nintzen eta jaten eman zenidaten». Baina kontua ez da on egite hutsa, baizik eta hori gure bizitzan jarrera eta jokabide etengabea izatea: gizaki

guztien egia gauzatu dadin borroka egitea. Jainkoaren irudi gisa duintasunez bizitzeko eskubidea dute, eta duintasun hori zerbitzatzeko konpromiso historikoari ebanjelioa deitzen zaio.

3. Izan ere, Jainkoa guztiongan agertu eta jarduten da. Asko dira, Elizatik kanpo ere, bere kontzientziari jarraituz egia gauzatzen saiatzen direnak. Jainkoaren hitzak gaur Ziro, Pertiako erregea ekarri digu gogora; pentsaera biblikoaren arabera paganoa zen baina egiaren bila jardun zen eta, erlijioa, kultua eta tenplua izateko judu herriaren eskubidea defendatu zuen. Gaurko indiferentzia giroan, kristauok, sekta gisa itxi eta erasoak sentitu beharrean, gure begirada zabaldu behar dugu, Jainkoaren irudia eta presentzia deskubritzeko, egia gauzatzeko indarra ematen baitigu. Ahots hori entzun eta bizitzan ahots horri jarraitzen saiatzen dena ez dago ebanjeliotik urrun, ebanjelioa ez baita gizateriaren aurkako epaia, salbamen-iragarpena baizik: «Jainkoak ez zuen Semea mundua kondenatzera bidali, mundua beraren bidez salbatzera baizik».

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egin diezaiogun otoitza Jaunari, ez baitu nahi bekatariaren heriotza, bihotz-berritu eta bizi dadila baizik, eta eska diezaiogun izan dezala errukia bere herri damutuarekin:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

—Jaunak sendo ditzala Garizumaldi honetan adiskidetzearen sakramentua hartzeko prestatzen direnak eta beraien erruen egiazko damua iristen lagun diezaiela. Egigun otoitza. R̄.

- Jaunak fedegabeen adimena eta bihotza zabal ditzala egia ezagutzera iritsi daitezen, beraien bihotzak amesten duen egiazko atsedena iritsi dezaten. Egigun otoitz. *R̄*.
- Elizbarrutiko misioen alde: lurralde behartsuetan gu guztion izenean Jesusen berri ona zabaltzen ari diren gure misioen alde, hemendik haiei laguntzeko ahalegina egiten dugunon alde. Misiolaritza Elizaren jarrera ezinbestekoa dela jabetu gaitezen. Egigun otoitz. *R/*.
- Garizumako bidean aurrera eginez bihotz-berrituak eta argituak iritsi gaitzela gertu ditugun Pazko jaietara. Egigun otoitz. *R̄*.

Jainko on eta leiala ez diozu inoiz uzten zugandik aldentzen direnei deitzeari zugana bihotz berriz itzul daitezen, eta gurutzean jaso izan den Zure Semearen bidez gaitz guztien zaurietatik sendatzen gaituzu; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure grazia, espirituz eraberriturik Zure maitasunaren dohainei erantzun diezaiegun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Prefazioa

Garizumako I. edota II. prefazioak erabil daitezke (Meza liburua 478-480 orr.).

Egokia da, gaur, 4. Eukaristi Otoitza erabiltzea ere, bere prefazioarekin, B urteko igandeetako irakurgaietan azaltzen diren Jainkoaren itun ezberdinak Kristorengan betetzen direla adieraziz.

Oparigaien gaineko otoitza

Pozik eskaintzen dizugu, Jauna, betiko sendabide den oparia, eta apalki eskatzen:

ospa dezagula begirunez eta eskaini munduaren salbamenerako.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Oi Jainko, Zuk argitzen dituzu
 mundu honetara etorri diren gizon-emakume guztiak;
 argitu gure bihotza zeure graziaren distiraz,
 Zuri atsegin zaizuna erabil dezagun beti gogoan
 eta Zu benetan maita zaitzagun.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.


Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Zaindu itzazu, Jauna, zure laguntza eske dituzunok,
 indartu ahulak eta argitu beti zeure argiaz
 herio-ilunpean dabiltzanak,
 gaitz guztietatik bihotz onez aterata,
 ondasun gorenak eskura ditzaten.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
 Aitak, eta Semeak,  eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *℟*. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordezt, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).

Martxoaren 17an
GARIZUMAKO V. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Bosgarren igandea dugu Garizumako ibilbidean. Ongietorri, senideok, denontzat atsedeen-ete izan nahi duen kristau elkartera.

Gure bizitzetan itxaropenaren hazia ereingo du gaurko Jainkoaren Hitzak. Hazia (Kristo) guran jarria da, salbamen-fruituak eman ditzagun, guztion salbamenerako eta munduaren zorionerako.

Gure elizbarrutiko misioak gogoan ditugu gaur «Bide berriak» goiburuararekin. Eliza, izatez, misiolaria da beti eta guk ere gure testigantzarekin, otoitzarekin eta eskuzabaltasunarekin misio lurretan ari diren senideei beraien lanean lagundu nahi diegu.

Damu-otoitza

Gure fedearen misterioa ospatzera bildu gara. Eska dezagun lehenik barkamena eta onar dezagun Jainkoaren erruki berritzailea.

—Jesus Jauna, gure sufrimenduetan samintzen **zaren** Senidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu biziarekiz goresia **zaren** Jainko-Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu heriotzatik ateratzen gaituzun Piztuera **ra** eta Bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Jainko gure Jauna, zure Semeak
bere bizia emateraino maite izan zuen mundua;
egizu, guk ere maitasun bera izan dezagula beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Beharrezkoa dugu, egunero Jesusengana hurbiltzea eta ezagutuko ez bagenu bezala, begi-zabalez eta ikasteko gogoz begiratzea. «Betiko kristau» garenok dena dakigula uste badugu ere, asko dugu ikasteko oraindik Nazaretarraren bidean.

Lehenengo irakurgaia (*Jr 31, 31-34*)

Jeremias Profetaren liburutik

Hara, badator –dio Jaunak– Israel herriarekin eta Juda herriarekin itun berria egingo dudan garaia. Ez da izango Egiptotik ateratzeko eskutik hartu nituenean haien arbasoekin egin nuena bezalakoa, haiek hautsi egin baitzuten nire ituna, Ni haien nagusia izan arren, dio Jaunak.

Hona hemen etorkizunean Israelekin egingo dudan ituna, dio Jaunak: Barruan ezarriko diet neure legea eta bihotzean idatziko. Ni haien Jainko izango naiz, eta haiek nire herri izango dira.

Ez dute elkarririk irakatsi beharrik izango, “Ezagutu Jauna” esanez, denek, txiki nahiz handi, ezagutuko binaute, dio Jaunak; barkatu egingo baitiet gaiztakeria, eta haien bekaturik ez baitut gehiago gogoan izango».

Erantzun-salmoa (*Sal* 51 [50], 3-4. 12-13. 14-15)

Bi-hotz gar-bi - a gu-gan sor - tu, ar - nas biz - ko -
 rra bar-ne mui-ne - tan e - ma - gu - zu.

- ∞. Erruki zakizkit, ene Jainko, zeure **ma**itasunaz,
 suntsitu nire hobena zeure neurrigabeko **gu**pidaz.
 Garbi nazazu zeharo neure **re** errutik,
 garbitu neure **be**katutik. ☩.
- ∞. Ene Jainko, sortu bihotz gar**bi**a nigan,
 berritu arnasa sendoa nire **bar**nean.
 Ez nazazu bota zeure **re** aurretik,
 ez kendu niri zeure arnasa **sa** santua. ☩.
- ∞. Poztu nazazu berriro zeure **sal**bamenaz,
 sendo nazazu zeure arnasa **opa**roz.
 Erakutsiko dizkiet gaiztoei zure **re** bideak,
 eta Zugana bihurtuko dira be**ka**tariak. ☩.

Bigarren irakurgaia (*Heb* 5, 7-9)

Hebrearren egindako gutunetik

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiadar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat.

Ebanjelio-aurreko gorapena (*Jn 12, 26*)

Je - su - kris - to gu - ri min - tza, ar - gi gu - re bi - ho - tza.

∞. Nire zerbitzari izan nahi **du**enak,
 jarrai biezat, **di**o Jaunak,
 eta Ni nagoen **to**kian,
 han izango da nire zerbitzaria **a** ere. ∞.

Ebanjelioa (*Jn 12, 20-33*)**Homiliarako argibideak**

Guztiek bizia izan dezaten lan egin, Jainkoa goretsiz

1. Behin eta berriz esaten da gizakiak Jainkoa aintzarako jaio gabela. Horrek pentsaraz diezaguke Jainkoak bere nagusitasuna zabaltzeko sortu gaituela, menpeko gehiago izateko. Batzuetan, Jainkoaren aintzak gizakien jazarpena eta heriotza justifikatu du federik ez dutelako edota erlijio jakin bat praktikatzen ez dutelako. Hori ez dator bat Jesusen portaera historikoarekin: gizakiaren bititza eta askatasuna lege eta erritu erlijioso guztiak baino sakratuagoak dira. Jainkoa maitasuna bada eta maitatzen besterik ez badaki, gu geu izateko sortu gaitu, hazteko eta gure berezitasunarekin betetasunera iristeko. Jainkozko izaera hori isuri du Espirituak gure bihotzetara: Jainkoari aintza ematen diogu besteekiko maitasunean bizi garenean eta denek bizia izateko konpromisoari erantzuten diogunean.

2. Nazareteko Jesusek «neurririk gabeko» Espiritu hori jaso zuen. Berak dio bere janaria, eusten duena eta atsegin zaiona Aitaren borondatea egitea eta bere proiektua gauzatzea dela: denek bizia

izatea... «Obeditzen ikasi zuen», mundu honetan zehar ibiliz, gertatzen zena bereiziz, gizakiengana gerturatuz sendatzeko, animatzeko, eroralditik altxatzeko, segurtasun faltsuetatik askatzeko. Horregatik, kristauok aitortzen dugu Jesu Kristo «Jainkoa-gurekin» dela; Jainkoak eraldatutako gizatasuna.

3. Jesusen heriotza eta piztuera ospatzera goaz. Berak erabat utzi zion Espirituari molda zezan, Espiritu hori baita guztiari bizia eta arnasa ematen diona. Espiritu horrek agertzen digu Jainkoaren aintza eta laguntzen digu Jainkoaren errukia gozatuz gu geu errukitsu izaten. Onginahiz betetako gertutasun horren indarrez Jesusek Jainkoari aintza eman zion: gaixoak sendatuz, behartsuak zainduz, harroei bihotz apala emanez eta... azken finean, gurutzean hilez.

Hala, benetako humanismoa zer den eta nola gauzatzen den adierazi zuen. Maitasun horrek eraginda, Jesusek guztiok bizia izan dezagun heriotza onartu zuenean, Jainkoaren aintza aldarrikatzeaz gain, gizakiaren aintza ere iristen du. Ebanjelioaren arabera, besteekiko maitasunagatik bizia ematen duena «fruitu asko emateko» hiltzen den hazia bezalakoa da.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egigun otoitz, senide maitteok, eta eska dezagun Jaunaren errukia, bere herriarekiko onginahiz beterik gure eskariak entzun ditzan:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri - e, Ky-ri - e, e - lei - son! Ky-ri - e, Ky - ri - e, e - lei - son!

—Bere herria biziartzeko bere burua heriotzara eman zuen munduaren Salbatzaileak, Eliza gaitz guztitik libra dezala. Egigun otoitz. R̄.

- Gurutziltzatu zutenen alde gurutzean otoitz egin zuen munduaren Salbatzaileak, bekatarien alde Aitaren aurrean bitarteko egin dezala. Egigun otoitz. R̄.
- Elizbarrutiko misioen alde: lurralde behartsuetan gu guztion izenean Jesusen berri ona zabaltzen ari diren gure misioen alde, hemendik haiei laguntzeko ahalegina egiten dugunon alde. Misiolaritza Elizaren jarrera ezinbestekoa dela jabetu gaitzen. Egigun otoitz. R/.
- Gurutzean sufrimendua eta ezina pairatu zituen munduaren Salbatzaileak, sufritzen duten guztiekin erruki izanez indarra eta laguntza eman diezaiela bere minetan. Egigun otoitz. R̄.
- Egun hauetan Jesusen Gurutze-bidea gurtu eta oroitzeko prestatzen garenok, munduaren Salbatzaileak bere piztueraren garrez indarberri gaitzala. Egigun otoitz. R̄.

Entzun Aita, itun berri eta betikoa eratzeko gurutzeko heriotzaraino esaneko egin zen Zure Semearen otoitzak; egizu, bizitzako probaldien bidez jakin dezagula Bere nekaldian parte hartzen eta hiltzen den haziaren emankortasuna iritsirik, uzta on bezala biltzea merezi dezagula Zure erreinuko biltegietan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R̄. Amen.

Diru-bilketa egiten den unean

Diru-bilketa gure Elizbarrutiko misioei laguntzeko izango da.

Prefazioa

Garizumako I. edota II. prefazioak erabil daitezke (Meza liburua 478-480 orr.).

Egokia da, gaur, 4. Eukaristi Otoitza erabiltzea ere, bere prefazioarekin, B urteko igandeetako irakurgaietan azaltzen diren Jainkoaren itun ezberdinak Kristorengan betetzen direla adieraziz.

Oparigaien gaineko otoitza

Entzun iezaguzu, Jainko ahalguztiduna, eta egizu,
sakrifizio honek garbi gaitzala
kristau-sinesmenaz argitu gaituzunok.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄.* Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna, egizu,
orain Kristoren Gorputz Odolekin bat egin dugunez gero,
haren gorputzeko atal izan gaitzela beti.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. *R̄.* Eta zure espirituarekin.
Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.
(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinka ezazu, Jauna,
zure errukia itxaro duen zeure herria,
eta emaiozu bihotz zabalez Zuk argiturik eskatzen duena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄.* Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, **✠** eta Espiritu Santuak. *R̄.* Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *R̄.* Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordeztan, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Liburuxka honetan 4. or.).

Martxoaren 24an
JAUNAREN NEKALDIKO ERRAMU IGANDEA

Agurra

Aitaren eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ✠. Amen.

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Sarrerako oharpena (*Batzarburuak berak*)

Senide maiteok: Garizumako aldi honetan bihotza prestatzen aritu gara penitentziaz eta maitasun-egintzez. Hurbil dugu Pazko-jaia. Jaunaren pazko-misterioari, hau da, haren nekaldiaren eta piztueraren misterioari, Eliza osoarekin bat eginik hasiera emateko ospakizuna egitera bildu gara gaur. Misterio hori betetzeko sartu zen Jauna Jerusalemgo hiri santuan. Ospa dezagun, beraz, fedez eta maitasunez, gu salbatzeko egin zuen sarrera horren oroitzapena, eta jarrai diezaiogun geure Jaunari, grazia lagun dugula haren gurutzean bat eginda, haren piztueran eta bizian ere bat egin dezagun.

Bedeinkapen otoitza

Ondoren eskuak bildurik otoitz hauetako bat egingo du.

Jainko ahalguztidun betierekoa,
bedeinka itzazu ✠ erramu-adar hauek;
eta egizu, Kristo Erregeari
goraka eta kantari jarraitzen diogunok,
haren bidez betiko Jerusalemara heldu gaitetzela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Edota:

Oi Jainko, indar ezazu Zugan uste on dutenen fedea eta entzun bihotz onez gure otoitzak: gaur Kristo garailea erramu-adarrekin goraipatzen dugunok, berarekin bat eginik, egintza onen fruituak eman ditzagun. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Ondoren (intsentsua erabiltzen bada liburua lurrinduz) Ebanjelioa hots egingo du.

Ebanjelioa

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik (11, 1-10)

Jerusalemera hurbildu zirenean, Oliamendi ondoko Betfage eta Betania herrixketara iritsirik, ikasleetako bi bidali zituen Jesusek, esanez: «Zoazte aurreko herrixka horretara; sartu orduko, astakume bat aurkituko duzue lotua, gainean oraindik inor jarri ez zaiona; askatu eta ekarri. Eta norbaitek zer ari zareten esaten badizue, erantzun: “Jaunak behar du; baina berehala itzuliko du bertara”».

Joan ziren, bada, eta han aurkitu zuten astakumea ate ondoan lotua, kanpoan kalean, eta askatzen hasi ziren. Bertan zeudenetako batzuek esan zieten: «Zer ari zarete astakumea askatzen?» Jesusek esana adierazirik, haiek astakumea eramaten utzi zieten.

Jesusi eraman zioten, eta beren jantziak astakumeari bizkarrean ezarri zizkieten, eta Jesus gainean eseri zen. Askok beren jantziak zabaldu zituzten bidean; beste batzuek, berriz, landetan ebakitako abarrak. Aurretik eta ondotik zihoazenek, hau zioten oihuka:

«Hosanna!

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!

Bedeinkatua datorren erreinua, gure aita Daviden erreinua!

Hosanna Goi-goikoari!»

Edota beste hau:

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik (12, 12-16)

Aldi hartan, jaietarako etorria zen jendetza handia, Jesus Jerusalemera zetorrela jakitean, palma-adarrak hartu eta bidera atera zitzaion eta oihuka hasi zen:

«Hosanna! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!
Bedeinkatua Israelgo erregea!»

Astotxo bat aurkiturik, gainean jarri zen Jesus, Liburu Santuak dioen bezala:

«Ez beldur izan, Sion hiria!

Hara, badatorkizu zeure erregea, astakume baten gainean eseria».

Ikasleak ez ziren orduan profetia honetaz jabetu; baina gero, Jesus goratua izan zenean, konturatu ziren Liburu Santuak dioen huraxe egin ziotela Jesusi.

Prozesioa

Ohargileak prozesiorako gonbidapena egin dezake hitz hauekin:

Erramu-adarrak eskuetan ditugula, Jesus goretsi zuen jendearen antzera, lagun diezaiogun guk ere Jaunari, pozez kantari.

Damu-otoitza

Prozesiorik eta Sarrera Nagusirik egin ez denean bakarrik. Herria agurtu eta Damu-otoitza egingo da, eta ondoren kolekta-otoitza.

«Pazko festaburua baino sei egun lehenago, Jauna Jerusalem sartzean, bidera atera zitzaizkion haurtxoak, palmadarrak eskuetan zituztela eta pozez oihuka: Hosanna zero goienetan! Bedeinkatua Zu, erruki handiz gugana zatozen Hori!».

Jo dezagun guk ere Jaunarengana, eta eska diezaiogun Bere errukiz berri gaitzala Aste Santuaren hasiera honetan.

—Jesus Jauna, bekaturik izan ez arren geure bekatuen zama **hartu** zenuena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure bekatuen barkamenarako gurutzean odola **isuri** zenuena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, hilen artetik piztuz heriotza **garaitu** zenuena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. **℟**. Amen.

Otoitza

Aldarera iritsi eta agurtu ondoren, jarlekura joango da eta otoitza esango du:

Jainko ahalguztidun betierekoa,
gizon-emakume guztiei apaltasun-bidea erakusteko,
gure Salbatzailea, giza haragia harturik,
gurutzean hiltzea nahi izan zenuen;
egizu, arren, har ditzagula gogoan
haren nekaldiko irakaspenak,
haren piztueran parte izan dezagun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. **℟**. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Bizia ematen dakien Jainkoaren irakaspenak gure itxaropena arnasberritzen du. Beheratzen dakiena gertatuko da gizadiaren altxagarri eta heriotzatik piztuerara igarotzeko bide. Bera hitzak sendotzen gaitu.

Lehenengo irakurgaia (Is 50, 4-7)

Isaias profetaren liburutik

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau,
bihotz-eroriei adore-hitza esateko.

Goizero dit belarria ernearazten,
ikasle onak bezala entzun dezadan.
Jainko Jaunak belarria ireki dit,
eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo.

Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei,
masailak, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei.
Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei.

Jauna dut laguntzaile;
horregatik, ez naiz kikildu;
horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala,
bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Erantzun-salmoa (Sal 22 [21] 8-9. 17-18a. 19-20. 23-24)

Ni - re Jain - ko - a, nun zau - de Zu? No - la es - ku -
tik u - tzi nau - zu.

- ✠. Ikusten nautenek burla egiten **di**date,
ezpainak okertuz, buruari **er**aginez:
«Jaunagana jo du, libra **de**zala!
Salba dezala, hainbeste mait**e** badu». ✠.



- ✠. Zakur-taldeak nau **ingur**atzen,
 gaizkile-multzoak **erdian** hartzen.
 Esku-oinak zulatu diz**ki**date,
 hezur guztiak zenbatu **di**tzaket. ✠.
- ✠. Nire jantziak banatzen **di**tuzte,
 nire soinekoa zotz **eg**iten.
 Baina Zu, Jauna, ez **egon** urrun!
 Ene indar, zatoz laster ni **lagunt**zera. ✠.
- ✠. Iragarriko diet zure izena neure senideei, '
 goretsiko zaitut batzarraren **er**dian.
 Goresazue Jauna, begirune dio**zue**nok;
 ospa ezazue, Jakoben ondorengo **guz**tiok,
 izan haren beldur, Israelen seme-**al**abok. ✠.

Bigarren irakurgaia (*F/p* 2, 6-11)

San Paulo Apostoluak Filipoarrei egindako gutunetik

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik,
 ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari;
 bestela baizik, zegokion aintza utzi
 eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez.
 Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua,
 menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino.

Horregatik, denen gaintik goratu zuen Jainkoak
 eta izen guztietan bikainena eman zion,
 Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen,
 zeruan, lurlean eta lurpean,
 eta mingain guztiek aitortzen dezaten Jesu Kristo dela Jauna,
 Jainko Aitaren aintzarako.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. *Flp* 2, 8-9)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho- tza.

✠. Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino,
gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu **egin** zuen,
eta izen guztien gaineko izena **eman** zion. ✠.

Ebanjelioa (*Mk* 14, 1 – 15, 47 edota, laburrago *Mk* 15, 1-39)**Homiliarako argibideak***Egjazko Mesias*

1. Mesianismoak Salbatzaile bat datorrela esan nahi du, gaitz guztietatik askatuko gaituena eta guztion zorion-gogoak aseko dituen. Historian zehar mesianismo desberdinak agertu dira. Batzuetan politikoak dira: arazo guztiak konpontzeko konpromisoa adieraziz konfiantza osoa eskatzen duten pertsona edo taldeak. Ekonomian zentratzen da beste batzuetan mesianismoa: gizakien nahiak aseko dituzten pertsonak edo taldeak, jarraitzaileen bizitzak gauzaz betetzen dituztenak, behar gehiago sortuz. Baina ikusten ari gara mesias horiek, beste edozein eremutan bezala, lokatzezko oinak dituztela.

2. Entzun dugun ebanjelioan ondo laburbiltzen da benetako mesianismoa. Mesias Jerusalemen sartu zen, Galileako herrixketan zehar izan zuen bizitzeko eta jarduteko modu berarekin: pobrea izanik, protagonismorik bilatu gabe, guztiak errespetatuz, ahulenekin, gaixoekin, sozialki eta erlijio mailan gaizki ikusitakoekin

zuen errukiak eraginda. Horrela, hiri santuan sartzen da, ez garai hartako errege eta nagusiek egiten zuten moduan zaldi baten gainean, baizik eta beste batek utzitako astotxo baten gainean. Bere jarduera publikoan bezala, hemen ere herriko jende xumeak hartzen du, eta Jainkoaren partetik datorren benetako Mesias gisa goraiatzen du. Hori ez dute onartzen farisearrek, agintari politikoek, ekonomikoek edo erlijiosoek, horiek behin betiko salbazioa emango dutela agintzen baitute, absolutuak izan nahi dutelako izaki huts direla ahazturik.

3. Agintzen eta menderatzen duen boterean oinarritutako mesianismoak gure bizitza pertsonalak ere kutsatzen ditu, gure familia- eta gizarte-harremanak ere bai, baita Eliza bera ere. Inoiz pentsa genezake gure indar fisikoak, gure posizio sozial onak, gure bertuteak, gure sinpatiak edo konbentzitzeko ditugun gaitasunek berez ziurtatzen dutela gure arrakasta eta gure salbamena ere bermatzen dutela. Hala ere, mesianismo hauek eta beste batzuk, luzarora, urtu egiten dira eta bizi dugun betetasun-desirarekin jarraitzen dugu. Munduko gizonik liluragarriena izan zitekeenak, Jesusek, bere Seme, Bidali, Jainkoaren Hitz izaera adierazi zuen, besteak baldintzarik gabe maitatu eta zerbitzatuz. Salbatzen duena, gizakiak benetan eragiten dituena maitasuna da; maitasunaren zerbitzura ez dagoen boterea ez da onargarria, gizatasuna kentzen duelako.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: gurutzean Aitari otoitz egin zion Jesus Salbatzaileari eska diezaiogun gure alde eta gizaki guztien alde:

Erantzuna: Kyrie, eleison!

Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e - lei - son!

- Gurutzean bere erasotzaileen alde otoitz egin zuen Jaunak, izan dezala erruki bekatu egin dutenentzat, eta adiskidetzearen bidetik eman diezaiela barkamena eta bakea. Egigun otoitz.
- Jesusen eskaintza izan dadila lagungarri ezjakintasunak, gogorik-
-ezak, gaiztakeriak edota tentaldi orok Jainkoagandik urrundu dituenentzat. Egigun otoitz.
- Gurutzean bakardaderen tristura eta garraztasuna nozitu zituen Jaunak izan dezala errukia gaixoeekin, atsekabetuekin eta zapalduekin, eta gure bihotzak ere horiei begira jar ditzan. Egigun otoitz.
- Lapur ona paradisuari hartu zuen Jaunak, eman diezagula guri ere bihotz-berritzeko gogoia eta har gaitzala egun batean bere bakezko erreinuan. Egigun otoitz.
- Garizumako bidean aurrera eginez bihotz-berrituak eta argituak iris gaitezen gertu ditugun Pazko jaietara. Egigun otoitz. *℟.*

Jainko ahalguztidun betierekoa, zeure Semea mundura bidali zenuen, bere nekaldiaz bekatua eta heriotza suntsitu eta bere piztueraz bizitza eta zorientasuna guri eskuratzeko; entzun zeure herri honen otoitzak, eta egizu goza ditzagula Jesu Kristoren gurutze aintzatsuaren fruituak. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟.* Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, zure Semearen nekaldiari esker
betorkigu laster zure barkamena;
eta, zure bihotz onberaz,
emaguzu, haren sakrifizio bakarrari esker, zeure errukia,
geure egintzengatik merezi ez badugu ere
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟.* Amen.

Prefazioa

Erramu igandekoa, Meza-liburuan 219. or.

Diru-bilketa egitean

Gaurko diru-bilketa sozio-karitatezko kanpainaren baitan Caritasen beharretarako izango da. Izan gaitezen eskuzabalak.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Zure misterio santuaz indarberriturik otoizka gaituzu, Jauna:
zure Semearen heriotzari esker,
sinesten dugun bizi betea itxarotea eman diguzun bezala,
emaguzu, haren piztueraz, bizi hori eskuratzea.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Bukaerako oharra

Bagoaz Jesusen eskutik. Aukera ugari izango dugu aste honetan Kristoren heriotza eta piztuera gertaberritzeko. Ahalegin berezia egin behar genuke guztiok larunbat santu gauean Kristoren Piztuera ospatzera biltzeko. Hori da, dudarik gabe, urteko elizkizun nagusia.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Begira, Jauna, zeure familia honi,
honengatik nahi izan baitzuen Jesu Kristo gure Jaunak
bere bizia gaizkileen eskuetan utzi
eta gurutzeko heriotza hartu.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
 Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. *R̥*. Amen.
 Zoazte Jaunaren bakean. *R̥*. Eskerrak Jainkoari.

Edota:

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *R̥*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Errukiaren Aitak maitasunaren ikasbidea eman dizue
 bere Semearen nekaldian;
 egin zaitzatela Jainkoaren eta gizakien zerbitzari
 eta eman diezazuela
 bere bedeinkapenaren dohain miragarria. *R̥*. Amen.

Kristoren heriotzak
 betiko heriotzatik atera zaituztenez gero,
 eman diezazuela betiko bizia ere. *R̥*. Amen.

Kristori maitasun-bidean jarraituz,
 izan zaitzetzela haren lagun piztueran ere. *R̥*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
 Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. *R̥*. Amen.

Martxoaren 28an
JAUNAREN AFARIKO OSTEGUN SANTUA

Agurra

Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako oharpena

Jesusen Azken Afaria, Bere bizitzaren ondorio da: bizitzan egindako zerbitzua eta eskaintza bildu zitueneko eguna. Gurutzean egingo zuena ezaugarri bidez –ogiaren eta ardoaren bidez– agerian jarri zituen. Piztueraren bidez gertatuko zena aurreratu zuen.

Arratsalde honetan, gu, Jesusen ikasle eta jarraitzaileok, berak buru den mahaiaren inguruan biltzen gara Apostoluak gau hartan bezala. Han egin eta esan zuena, Jesusek berak, hemen esan eta egingo du, gure artean, egia eta maitasun berberaz.

Poztu gaitzen Gurutzeko eskaintzaz, Gurutzetik datorkigu osasuna, Gurutzetik gure piztuera eta bizia, Gurutzetik salbamina eta askatasuna.

Damu-otoitza

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitzen.

—Jesus Jauna, zurekin parte izan zezaten ikasleei oinak garbitu zenizkiena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, betiko bizi gaitzen zerutik jaitsitako biziaren ogia zarena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zure odolaz itun berri eta betikoa **eratu** duzuna:
Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik,
eraman gaitzala betiko bizira. **℟.** Amen.

Aintza (*bitartean jo daitezke kanpaiak eta txilinak*)

Otoitza

Oi Jainko, zure Seme bakarrak
bere burua heriotzara eman aurretik
betiko Itunaren sakrifizio berria utzi zion Elizari;
haren maitasun-agiri den Afari santua ospatzera
bildu gaituzu arratsalde honetan;
egizu, misterio handi hau ospatzeak
bete gaitzala maitasunez eta bizi berriz.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. **℟.** Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gaurko Meza honetan, oso garbi ikusten dugu Meza guztietan
gertatzen dena: entzuten dugun Hitzza bete egiten dela ospakizunean
bertan, gudan. Gaur herri askatua gu gara, gaur Kristok guretzat
ematen du Bere burua, gaur Kristo gure zerbitzari egiten da guk ere
gure burua eskaintzen eta guztien zerbitzari izaten ikas dezagun.

Lehenengo irakurgaia (*Jr 12, 1-8. 11-14*)

Irteera liburutik

Egun haietan, honela mintzatu zitzaien Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilabete hau izango duzue hilabete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: “Hil honen hamarrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiek hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoleztatuko dituzue. Gau horretan, sutan errea jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik.

Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen-ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zuek zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte suntsituko.

Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohoretan. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belaunez belaurik».

Erantzun-salmoa (*Sal* 116 [115], 12-13. 15 eta 16bc. 17-18)

Es-ker o - nez-ko ka - li - zak Kris - to - ren o - do - le - an
el - kar - tzen gai - tu.

- ✠. Nola ordainduko diot **Jaunari**
egin didan on **guztia**?
Salbamen-edontzia dut **altxatu**ko
eta Jaunaren izenari dei **egingo**. **℟**.
- ✠. Mingarri zaio **Jaunari**
bere fededunen heriotza.
Zure zerbitzari ezereza **naiz**, Jauna,
askatu dituzu nire **kateak**. **℟**.
- ✠. Gorespen-oparia dizut **eskainiko**
eta Jaunaren izenari dei **egingo**.
Beteko dizkiot Jaunari **promesak**,
herri guztiaren **aurrean**. **℟**.

Bigarren irakurgaia (*1 Ko* 11, 23-26)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri».

Afalondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri».

Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte. Era berean, kalizarekin ere afal ondoan, hitz hauek esanez: «Kaliza hau itun berria da nire odoletan; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri».

Ebanjelio-aurreko gorapena (Ik. Jn 13, 34)



✠. Agindu berria ematen dizuet, dio Jaunak:
maita dezazuela elkar,
Nik maite izan zaituztedan bezala. ✠.

Ebanjelioa (Jn 13, 1-15)

Homiliarako argibideak

Azkenerraino maitatu gintuen

Gaurko irakurgaiak ez dute argibide handirik behar. Hasiera liburuko irakurgaiak juduen Pazko-jaiaren hasiera gogoratu digu. Egiptotik askatu izana, erromesen jantzi eta janariekin oroitzen dute. Jainkoak bere herriarekin eta gizadi osoarekin egindako itun handia oroitzen dute. Itun haren berrikuntza eta betetzea da Jesusen heriotza eta piztuera, Itun Berria. Eukaristia da Jainkoak gure alde egindakoaren

ospakizuna eta presentzia bete-betea. Jesusen bizitza, heriotza eta piztuera da Jainkoak gure alde egin duena.

Ostegun Santuko mezua hitz gutxitan adieraztea ez da erraza, neurrigabea baita. Eukaristia eratu izanaren komentariarik onena entzun dugun ebanjelioa da: «azkeneraino maitatu zituen». Eukaristia da Jainkoak Kristoren bidez gizadiari eta gutako bakoitzari adierazi digun maitasunaren gailurra eta agerpen bikaina. Aita Jainkoak Semea eman digu, Semeak, esaneko izanez bere bizia eskaintzen du heriotza aurreratuz, Espiritu Santuak bildu egiten gaitu eta Kristoren maitasunean elkartzen. Sakramentua eratzean, Aitari dion maitasunaren emaitza ematen digu Jesusek, betiko biziaren aurrerapen moduan. Honela betetzen da Jainkoak gurekin egin duen maitasun-Ituna, honela gainditzen dira bekatua eta batasun falta, honela elkartzen gaitu Espirituaren dohainak Aitarekin eta hasten gara munduan Jainkoaren Erreinua eratzen, maitasunaren, batasunaren eta senide izatearen Erreinua, elkar maitatuz eta zerbitzatuz. Hori guztia giltzarriaren gainean gertatzen da: Kristo da giltzarria, aldarea, oparia, janaria.

Graziaz betetako eguna da gaurkoa. Otoitzean igarotzeko eguna. Gaurko Meza honek kontenplaziora eta esker onera garamatza. Pentsa dezagun afaltokian gaudela, Mariarekin, ikasleekin. Jesusek bere nekaldia eta heriotza eskaintzen digu. Aitari eta munduari dion maitasuna agertzen digu, bere maitasun osoa gure bihotzera isuri du. Maitasun horrek bete gaitzan uztea da komunioa, Jesusekin eta senideekin bat egitea. «Egizue hau nire oroigarri». Eukaristia honek lagun diezagula Erreinuaren bizimodua geureganatzen: zerbitzuan bizitzen. Egunero ospatzen du elizak Ostegun Santuko misterio harrigarri hau. Egunero ospatzen dugu Jainkoak maite gaituela eta Kristoren eskaintzan berreskuratu egin gaituela, bereganatu gaituela. Biziaren iturria den Jainko horrekin elkartu gaitzen. Utz diezaiogun bere maitasunez bete gaitzan.

Homiliaren ondoren, ikuspegi pastoraletik egoki bada, oinak garbitzea egingo da. Horretarako Jainkoaren herriaren artetik aukeratuak izan direnak aurrez ipinirik dauden jarlekuetara eramango dituzte laguntzaileek. Gero, apaiza (hala behar izanez gero, kasuila utzirik) bakoitzarengana hurreratuko da, eta laguntzaileek oinak urez bustitzen eta lehortzen lagunduko diote. Bitartean kantu egokiren batzuk abestuko dira.

Oinak garbitzeari oharpena

Jesusek bere ikasleekin egin zuena, orain, elkarteko buru den apaizak egingo du. Gure Maisu eta Jaunak esana da: “Nik oinak garbitu dizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue”. Hau da, denok elkarrekin zerbitzalagoak izan behar dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egogun Kristori, Jainkoaren Gantzutuari, bere eskuetan utzi baitu Aitak gutzia, eta eska diezaigun entzun ditzala gure otoitzak:

Erantzuna: **Elkar maite dezagun egogun otoitz.**



El-kar mai-te de-za-gun e-gi-gun o-toitz.

- Kristau guztiek jakin dezatela bere ikasleei oinak garbitu zizkien Jaunaren apaltasun erduei jarraitzen, eta izan dezatela ukatu zuen Pedroren malkoak onartu zituenaren onginahi bera. ℞.
- Egun hauetan bere zerbitzuaren hasiera oroitu eta beronen promesak berritu dituzten Fernando gure Gotzainaren eta bere apaizen alde; Jesusekin erabat lotuta bizi daitezen emandako hitzarekin leial izanez. ℞.

- Sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak batasunean biltzeko bere burua heriotzara eman zuen Jaunak, eman diezaiela egiazko bihotz-berritzea bekatuarengatik edo axolagabekeriarengatik bere Elizatik aldendu direnei. *℟̣.*
- Gotzainak sagaratu-berri duen salbamenaren olio gantzutuak izango diren gaixoek bizi dezatela Jaunaren babes eta arinduak izan daitezela bere min eta gaixotasunetan. *℟̣.*
- Bera beheratzean altxa, Bere burua eskainiz barkamena iritsi, Bere odolez garbitu eta Bere haragiz janaritu gaituen Jaunak, argi ditzala gure buruak gaur gertaberritzen ditugun misterioak ulertu eta maitatu ditzagun. *℟̣.*

Jesu Kristo Jauna, oraindik lurrean bizi garela betiereko otorduaren aurrerapen den mahaira deitzen gaituzunez, entzun gure otoitzak eta egizu zure garaipenaren sakramentuak ospatzera biltzen garenok mahaikide izan gaitzela betiereko Pazkoaren mahaian. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. *℟̣.* Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jaunartzea bukatutakoan, aldare gainean utziko da kopoia, hurrengo egunean jaunartzeko ogi sagaratuarekin. Apaizak, jarlekuan zutik, jaunartze ondorengo otoitza esango du.

Jainko ahalguztiduna,
 gaur ospatu dugun zure Semearen Afarian
 indarberritu gaituzu;
 egizu, betiereko mahaian ere ase gaitzela.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟̣.* Amen.

Sakramentu Santua toki berezira aldatzerakoan

Orain Kristoren Gorputza gordeko dugu, biharko elizkizunean jaunartzeko. Jaunak Eukaristian eman digun dohain paregabea gozatzeko aukera ematen zaigu arrats honetan. Gurtu dezagun fedez Eukaristiaren misterioa. Bihar, (*ordua zehaztu*) bilduko gara Jaunaren Nekaldiaren eta Heriotzaren ospakizuna egiteko.

Martxoaren 29an
JAUNAREN NEKALDIKO OSTIRAL SANTUA

Sarrerako oharpena

Ostiral Santu arratsalde honetan, isilean eta otoitzean bilduak gaude, baina ez gara etorri hildako baten hilobi aurrean isilik egotera, Jesu Kristo bizi dela sinesten baitugu. Ez gara etorri saldua, torturatua eta gurutzean josia izan den gizon baten hiletak jotzera, gurutzea garaipen-ikurra baita. Ez gara bildu antzinako istorio batzuk entzutera, Kristoren nekaldia egiazkoa baita.

Kristau elkarteak Kristoren heriotza kontatzen digun Jainkoaren Hitzaren entzutera bildu da, Gurutze salbagarria gurtzera eta bere burua eskaini eta batasunean biltzen gaituenaren Gorputza partekatuz. Otoitz sendoa egin nahi dugu, uste onez eta itxaropenez betea. Bai baitakigu Kristoren heriotza eta piztueratik datorrela gizakion salbamena ere. Isilik eta begirune osoz hasten gara.

Apaiza eta diakonoa –diakonorik bada–, Mezarako bezala gorritz jantzita, aldarera doaz isiltasunean, eta, aldarea agurtu ondoren, ahuspez etzango dira edota, egokiago iritziz gero, belaunikatu; eta une batean isilik otoitz egingo dute. Gainerako guztiak belaunikatu egingo dira.

Gero apaiza, bere laguntzaileekin, jarlekura joango da. Han, zutik dagoen herriari begira eta eskuak bildurik dituela, ondorengo otoitzetako bat esango du, Egin dezagun otoitz deia egin gabe.

Otoitza

Jauna, Jesu Kristo zure Semeak,
bere odola gugatik isuriz sortu zuen pazko-misterioa;
izan gogoan zeure bihotz ona eta agertu zeure errukia;
egitazu santu zeure seme-alabak eta zaindu beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

Edota:

Oi Jainko,
 Kristo zure Seme eta gure Jaunaren nekaldiaz ezereztu zenuen
 lehenengo bekatuak gizon-emakume guztiengana
 zabalduko heriotza;
 egin gaitzazu zeure Semearen antzeko,
 gure izate mugatuak beharturik
 gizaki lurtarraren irudia daramagunok
 zure grazia santutzaileari esker
 gizaki zerutarraren irudia ere eraman dezagun.
 Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. *℟.* Amen.

I. HITZAREN LITURGIA

Hitzaren liturgiari oharpena

Hitzaren liturgia da elizkizun honen lehenengo zatia. Jaunaren Nekaldiaren kontakizuna izango da irakurgai nagusia eta Nekaldia ulertzen lagunduko digute aurreko irakurgaiek. Jaunak «bere gain hartu zituen askoren bekatuak» eta «haren esaneko egin direnentzat betiko salbamenaren iturri egin da».

Lehenengo irakurgaia (*Is 52, 13–53, 12*)

Isaias profetaren liburutik

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jaso izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrituko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko. Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena?

Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargarririk; mespretxatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mespretxatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez.

Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman. Guk, berriz, zigortutzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetutzat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte.

Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza bere bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu.

Gogorki eta zuzengabe eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekeriarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan.

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asean izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen.

Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kidetzat hartu zutelako.

Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

Erantzun-salmoa (*Sal* 31 [30], 2 eta 6. 12-13. 15-16. 17 eta 25)

Zu - re esku-e - tan dut bi - zi - a, as - ka na - za -
 zu, Jaun haun - di - a.

- ∞. Zugan babesten naiz, Jauna, ‘
 ez nadila behin ere lotsagarri gerta;
 atera nazazu onik, zuzena **baitzara**.
 Zure eskuetan uzten dut neure **bizia**;
 aska nazazu, Jauna, Jainko **leiala**. R̃.
- ∞. Iseka-bide bihurtu naiz **etsai**entzat, ‘
 are gehiago auzo**ko**entzat;
 izua sortzen diet ezagunei; ‘
 ni kalean ikusi eta alde egiten **didate**.
 Ahaztua naute erabat, hildakoa **bezala**,
 baztertua, alferreko tresna **bezala**. R̃.
- ∞. Baina nik, Jauna, Zugan dut kon**fi**antza;
 hau diot: «Zu **nire** Jainko».
 Zure eskuan dut neure **zoria**,
 libra nazazu etsai eta pertsegitzailen **es**kutik. R̃.
- ∞. Erakutsi aurpegi argia zerbitzari honi,
 salba nazazu zeure maita**sun**az.
 Eutsi gogor, **izan** bihotz,
 Jaunagan itxaroten duzuen **guz**tiok! R̃.

Bigarren irakurgaia (*Heb 4, 14-16; 5, 7-9*)

Hebrearrei egindako gutunetik

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, euts diezaiozun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun.

Kristok, bere giza bizitzaldian, deiadar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat.

Ebanjelio-aurreko gorapena (*Ik. Flp 2, 8-9*)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho - tza

∞. Kristo gugatik menpeko egin zen heriotzaraino, ' gurutzeko heriotzaraino.
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,
eta izen guztien gaineko izena eman zion. ∞.

Ebanjelioa (*Jn 18, 1 – 19, 42*)

Homiliarako argibideak

Maitatu ninduen eta nigatik eman zuen bere burua

Agintari juduei ez zitzaien gustatu gurutzean jarritako titulua, akusatu hark egindako krimena -errege izan nahia-, adierazten zuena. Agintari haiek asmatu eta argudiatu zuten akusazio hura, ordea. San Joanen ebanjelioak oso serio hartzen du, eta Jesusen errege izendapenean ezartzen du nekaldiaren historia guztiaren ardatza (*Jn 18, 1-19, 42*). Oso errege berezia da, noski, asto baten gainean hasi baitzuen tronurako ibilbidea. Gurutzea izan zen tronua, eta jarri zioten koroa, berriz, arantzazkoa. Jesus bere gurutzetik izan zen errege. Hala, nork bere intereserako erabilitako erregetza eta giza botere oro kritikatzten da.

Historiako biktima guztiei justizia egiteko dago erregea. Gizakiok ez dugunez justiziarik egitek, Jainkoak egitea espero dugu. Eta bai, Jainkoak egiten du justizia, baina modu guztiz harrigarrian. Justizia ez da bakoitzari berea ematea besterik, jada, salbamera esan nahi du. Herria askatuz egiten du justizia Jainkoak, bere bekatutik libratuz. Gurutzean besoak zabalik, unibertsoa besarkatzen du Jesusek.

Bere tronutik, bere mendekoei bere dohainak isurtzen hasiko da. Ez da bere buruagan pentsatzeko unea, besteengan baizik. Soldaduak ere onuradun irten ziren, euren jantziak banatuz. Tunika, pieza bakarrekoa, indarkeriaz jositako mundu lazgarri baten erdian dagoen Elizaren batasunaren sinbolo da.

Ikasleek hartuko dute onena, ordea. Ikasle kuttunari eta, horrekin, gainerako guztiei, bere ama emango die Jesusek. Horixe da oparirik onena, Hark gehien maite zuena, gauzarik baliotsuena. Zorioneko ikasleak bere bizitzan hartuko du. Mariarekin, salbazioaren zain egon ondoren Jesusen heriotzarekin itxaropen hori gauzatuta ikusten Herriaren historia jaso dugu. Mariak ere hartuko du ikaslea.

Elizaren bizitza sinestun bakoitzaren arduraren eta kariñoaren esku dago. Askotan, Eliza hori ez dugu oso gustuko, baina gure Ama da. Jesusek berak eman digu.

Bere espiritua eman digu batez ere Jesusek. Ez zen hil, bere espiritua eman zigun. Espiritu hori, haren hatsa, haren bizia, dago gugan, bere ikasleengan. Espiritu horrek piztu zuen Jesus hilen artetik, eta presente egiten du elizaren bizitzan. Maitasunezko espiritu horrek eraldatzen ditu Elizaren errealitateak, Eliza bera giza talde hutsa ez, baizik eta Jainko Aitaren, Semearen eta Espirituaren maitasunaren adierazpen izan dadin.

Espiritu horrek pertsonen eta ekintzen bitartekaritza konkretuen bitartez jarduten du, ordea, sakramentuen bitartez batik bat. Kristoren saihets irekitik sortu ziren Eliza eta sakramentuak, bataioarekin eta Eukaristiarekin. Bi horiek Kristoren Pazkoko gertaeretan murgiltzen gaituzte, haren heriotzan eta piztueran. Har dezagun parte, minez eta esker onez, Kristoren Pazkoan, haren piztuerara iritsi ahal izateko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Une garrantzitsua da Jainkoaren herriaren otoitzarena. Merezi du lasai egitea, adibidez: diakonoak edo ohargileak asmoa jartzen du, isilune bat egiten da (batzarrak "Kyrie, eleison" abes dezake), apaizak otoitza eta batzarrak "amen".



Ky-ri - e, Ky-ri - e, e - lei - son! Ky-ri - e, Ky - ri - e, e - lei - son!

I. Eliza santuaren alde

Senideok, egin dezagun otoitz Jainkoaren Eliza santuaren alde: gure Jaun eta Jainkoak bakea, batasuna eta la-guntza eman diezaiola mundu zabalean; guri, berriz, bizimodu baketsua, Jainko Aita ahalguztiduna goresteko. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Kristogan herrialde guztiei agertu diezu zeure aintza;
 zaindu ezazu zeure maitasunaren egintza,
 mundu guztian zabaldurik dagoen zure Elizak
 sinesmenean sendo iraun dezan eta zure izena aitortu.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

II. Aita Santuaren alde

Egin dezagun otoitz Frantzisko gure Aita Santuaren alde: gotzain-
 mailara deitu duen Jainkoak sendo gorde dezala bere Eliza
 santuaren onerako, Jainkoaren herri santua zuzen dezan.
(Isilunea/kantua)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Zuk eratzten dituzu diren guztiak zeure jakinduriaz;
 entzun bihotz onez gure otoitzak
 eta gorde ezazu maitasunez
 guretzat aukeratu duzun Aita Santua,
 Zuk gidatzen duzun kristau-herriak,
 artzain honen ardurapean,
 aurrera egin dezan sinesmenean.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

III. Eliz zerbitzarien eta maila guztietako kristauen alde

Egin dezagun otoitz Fernando gure gotzainaren alde, eta Elizako
 gotzain, presbitero eta diakono guztien alde, baita kristau-herri
 osoaren alde ere. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zeure Espirituaz santu egiten duzu
 eta gidatzen Elizaren gorputz osoa;

entzun eliz zerbitzari guztien alde egiten dizkizugun otoitzak,
 zure graziari esker, bakoitza bere eginkizunean
 zure zerbitzari zintzo izan dadin.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

IV. Kristaugaien alde

Egin dezagun otoitz [gure] kristaugaien alde: Jainko gure Jaunak
 hauen gogo-bihotzak ireki eta bere errukiaren atea zabal diezaien,
 hauek ere, Bataioko uraren bidez be-katu guztien barkamena
 harturik, Jesu Kristo gure Jaunaren gorputzeko atal izan daitezen.
(Isilunea/kantua)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zeure Eliza seme-alaba berriz ugaritzen diharduzu beti;
 sendo ezazu [gure] kristaugaien sinesmena eta jakinduria,
 Bataio-iturriko jaiotza berriaz,
 zure seme-alaba ordekoen artean sar daitezen.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

V. Kristauen batasunaren alde

Egin dezagun otoitz, Kristogan sinesten duten senide guztien alde:
 egiari jarrai diezaioten beren bizitzan eta gure Jaun eta Jainkoak bere
 Eliza bakarrean bildu eta zaindu ditzan. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zure seme-alaba sakabanatuak biltzen dituzu,
 eta bildutakoak zaintzen;
 begira bihotz onez zeure Semearen artaldeko ardiei,
 Bataio berak santu egin dituenak
 egiazko sinesmenak bat egin ditzan
 eta maitasun-lokarriak elkartu.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

VI. Juduen alde

Egin dezagun otoitz juduen alde ere, Jainko gure Jaunak profeten bidez lehenengo hitz egin zion herriaren alde: haren izen santuarekiko maitasunean aurrera egin dezaten beti eta harekiko ituna zintzo gorde dezaten. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Abrahami eta haren ondorengoei egin zenizkien zeure agintzariak;
 entzun errukiz zeure Elizaren eskariak,
 lehenengo aukeratu zenuen herria erospen osora irits dadin.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

VII. Kristorengan sinesten ez dutenen alde

Egin dezagun otoitz Kristogan sinesten ez dutenen alde: Espiritu Santuaren argiaz beterik, hauek ere salbamen-bidean sar daitezten. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 emaezu Kristorengan sinesten ez dutenei,
 zure aurrean bihotz leialez eta zintzo biziz,
 egia osoa ezagutzera iristea;
 guri, berriz, emaguzu elkar hobeto maitatzea,
 eta Zu sakonago ezagutzen ahalegintzea,
 zure maitasunaren aitorle hobeak izan gaitezen munduan.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℟. Amen.

VIII. Jainkoarengan sinesten ez dutenen alde

Egin dezagun otoitz Jainkoa ezagutzen ez dutenen alde: beren kontzientziari zintzo jarraituz Jainkoagana hel daitezten. *(Isilunea/kantua)*

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Zuk egin dituzu gizon-emakume guztiak,
 beti zeure bila ibil daitezen
 eta, Zu aurkiturik, Zugan atsedean izan dezaten;
 egizu, mundu honetako neke eta estualdietan
 denek ikus ditzatela zure bihotz onaren ezaugarriak
 eta zure sinestedunen testigantza,
 horrela pozik aitortu dezaten
 Zu zarela egiazko Jainko bakarra eta guztion Aita.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

IX. Herri agintarien alde

Egin dezagun otoitz herri guztietako agintarien alde: gure Jaun eta Jainkoak horien gogo-bihotzak bere nahiaren arabera gida ditzan, denen bakerako eta askatasunerako. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 zeure eskuetan dituzu
 gizon-emakumeen bihotzak eta herrien eskubideak;
 begira begi onez herrietako agintariei,
 zure laguntzaz mundu guztian izan daitezen
 herrien aurrerapena, bake iraunkorra eta erlijio-askatasuna.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

X. Atsekabetuen alde

Senideok, egin diezaiogun otoitz Jainko Aita ahalguztidunari: garbi dezala mundua oker guztietatik, uxa ditzala gaitzak, eman diezaiela ogia gose direnei, aska ditzala espetxeratuak, hautsi kateak, zaindu bidaiariak, etxeratu bidez dabiltzanak, sendatu gaixoak eta salba ditzala hilzorian daudenak. (*Isilunea/kantua*)

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 atsekabetuen poza eta nekatuen indarra,
 irits bitez Zugana
 edozein estualditan Zuri deiez daudenen eskariak,
 beren premietan zure errukiaren laguntza lortu izanaz
 poztu daitezten.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

II. GURUTZEA GURTZEA

Diru-bilketari oharpena

Lur santurako diru-bilketa egin daiteke (derrigorrezkoa ez bada ere):

Ohitura zaharra da Elizan, gaurko egunez diru-bilketa berezia egiteko. Eliza guztietan lehenengoa den Jerusalemgo Elizari laguntzeko. Horixe egingo dugu guk orain, Gurutzea gurtzeko prestatzen garen bitartean (*Edota gurutzea gurtzera gerturatzean*).

Gurutzea agertu aurretik oharpena

Gurutzea dugu ospakizunaren erdigunea. Berarengana zuzentzen ditugu gure begiak eta gure bihotzak. Orain, Jesusen gurutzea, Jesus bera gurutziltzatua gurtu behar dugu. Horretarako agertuko dute denon aurrean. Isiltasun eta begirunez, onar dezagun.

Gurutze santua gurtzea

Gurutzea ohi den eran agertu ondoren, musu eman ordeztu, buruarekin ere gurtu daiteke.

III. JAUNARTZE SANTUA

Aldareko oihala jarriko da, eta gainean gorputz oihalak eta Meza Liburua. Ondoren, diakonoak, edota diakonorik ez balitz apaizak berak, gure Jauna ekarriko du gordeta dagoen sagrariotik aldarera, bide laburrenetik; beste guztiak zutik eta

isilik egongo dira. Laguntzaile bik lagunduko diote Jaunari argizari piztuekin, eta argiak aldare inguruan edota gainean uzten dituzte.

Ondoren, Jaunartzeko ohikunea hasiko da aitagurearekin.

Jaunartze ondorengo oitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure Seme Jesu Kristoren
heriotza eta piztuera dohatsuaz eraberritu gaituzu;
zaindu ezazu gugan zeure maitasunaren egintza,
misterio honetan parte harturik
zure zerbitzari izan gaitezen beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Bukaera

Bihar bilduko gara gaueko (*esan ordua*), pozez Pazko Gaubeila ospatzeko. Ospakizun horrek ematen die zentzua atzoko eta gaurko ospakizunei. Ahalegin gaitezen benetan, bertan parte hartzen. Azkeneko oitizaren ondoren isiltasun osoan geratuko gara.

Apaizak besoak herriaren gainera luzaturik, beste oitiz hau esango du:

Zure Semearen heriotza ospatu dugu, Jauna,
eta haren piztuera santuaren zain gaude;
bidal gugana zeure bedeinkapen ugaria,
etor bekigu zure barkamena,
emaguzu zeure kontsolamendua,
sendotu gure sinesmena
eta eraman gaitzazu betiko salbamenera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

Eta guztiak isilik aterako dira elizatik.

Une egokian, aldarea erantzi egingo da berriro.

CELEBRACIÓN COMUNITARIA DEL SACRAMENTO DE LA RECONCILIACIÓN

Canto de entrada

Saludo de quien preside

En el nombre del Padre y del Hijo y del Espíritu Santo. ℟. Amen.

Bendito sea Dios, que en su infinito amor nos ha dado a su Hijo Jesucristo. Que su misericordia esté con todos vosotros.

Monición

¡Sed bienvenidos, queridos hermanos!

Durante la Cuaresma nos hemos preparado para la Pascua del Señor que significa morir para resucitar con Él. Queremos clavar nuestros pecados en el madero de la Cruz para participar de la vida nueva del Espíritu.

Que esta celebración nos ayude a mirarnos en el espejo de Cristo, para sopesar lo que nos sobra y nos falta para parecernos a Él, para sentir la necesidad de conversión y abrimos a la gracia del Espíritu.

Otoitza

Oremos pidiendo a Dios que nos ilumine
para ver con claridad el camino de la conversión. (*Dejar un silencio*)

Dios Padre, rico en misericordia,
al ponernos en tu presencia y revisar nuestras vidas,
descubrimos que estamos lejos de responderte
con total generosidad
y por ello reconocemos tu bondad y nuestro pecado.
Danos ánimo para recorrer con gozo
nuestro camino de conversión a Ti.

ADISKIDETZE SAKRAMENTUAREN ELKARTEKO OSPAKIZUNA

Hasierako kantua

Batzar-buruaren agurra

Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ℞. Amen.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa,
bere maitasun neurrigabeen bere Seme Jesu Kristo eman diguna.
Haren errukia izan bedi zuekin.

Oharpena

Ongietorri senideok!

Garizumaldian zehar Jaunaren Pazkoa ospatzeko prestatzen ari gara,
Berarekin hilik Berarekin pizteko. Gurutzen iltzatu nahi ditugu gure
bekatuak, Espirituak ematen digun bizi berria hartzeko.

Kristoren aurrean jarri nahi dugu ospakizun honetan, Bere antza
izateko zer falta zaigun eta zer dugun soberan konturatzeko, bihotz-
berriturik Espirituaren graziaz bete gaitezen.

Otoitza

Egin dezagun otoitz Jainkoari argi gaitzan eskatuz
bihotz-berritzearen bidea argitasunez ikusteko. (*Isilunea utzi*)

Errukian aberatsa zaren Aita Jainkoa,
gure bizitzak aztertzeke zure aurrera etortzean
eskuzabaltasun osoz zuri erantzuteko asko falta zaigula nabari dugu,
eta horregatik eskertzen dugu zure ontasuna
eta aitortzen gure bekatua.
Emaguzu Zuganako bihotz-berritze bidea adoretzu egiteko grazia.

Por nuestro Señor Jesucristo, tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo,
y es Dios por los siglos de los siglos. ℞. Amen.

Monición a las lecturas

Dios nos hace una llamada a la conversión. Miramos a nuestra actitud interior para escuchar esa Palabra.

¿La aceptamos sin más? ¿Somos conscientes de nuestros fallos, egoísmos, debilidades, envidias...? ¿Hay en nosotros una actitud de humildad para reconocer nuestros pecados y pedir perdón? ¿Reconocemos a Dios como quien nos perdona y nos quiere?

Primera lectura (1 Jn 1, 5 – 2, 2)

Leccionario IV, página 365.

Salmo responsorial (Sal 51 [50], 3-4. 5-6ab. 12-13. 14 y 17)

Como el miércoles de ceniza.

Evangelio (Mc 10, 17-27)

Leccionario IV, página 560.

Sugerencias para la homilía

Esta reflexión está tomada de una carta pastoral de los Obispos de Euskal Herria. Es larga. Quien preside puede adaptarla o resumirla según las circunstancias.

«Vivir y comunicar el evangelio hoy», Cuaresma-Pascua 2007

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. R. Amen.

Irakurgaiei oharpena

Bihotz-berritzeko deia egiten digu Jainkoak. Gure barne-jarrerari begira jartzen gara Hitz hori entzuteko.

Besterik gabe onartzen al dugu? Jabetzen al gara gure erruez, egoismoez, ahultasunez, enbidiez...? Ba al dugu gure erruak aitortu eta barkamena eskatzeko adinako apaltasunik? Aitortzen al dugu Jainkoa maite gaituen onginahi-iturri bezala?

Lehenengo irakurgaia (1 Jn 1, 5 – 2, 2)

Irakurgaiak IV. liburukia, 230. orrialdea.

Erantzun-salmoa (Sal 51 [50], 3-4. 5-6ab. 12-13. 14 eta 17)

Hausterre egunean bezala (Ik. aldizkari honen 6. orrialdea).

Ebanjelioa (Mk 10, 17-27)

Irakurgaiak IV. liburukia, 294. orrialdea.

Homiliarako argibideak

Hausnarketa hau Euskal Herriko Gotzainen pastoral idazki batetik hartua dago. Luzea da. Batzar-buruak moldatu beharko du edota laburtu, beharraren arabera.

«Berri Ona bizi eta iragarri gaur egun», 2007ko Garizuma-Pazkoa

¿Quién, que de una u otra manera se haya interrogado acerca de su fidelidad al Evangelio, no se siente reflejado en este pasaje? Como la mayor parte de los relatos evangélicos, éste también está surcado por detalles que le otorgan gran capacidad para reflejar sentimientos y actitudes de honda humanidad y espiritualidad. Volvemos a encontrarnos con un Jesús que, en este caso y una vez más, se pone en camino en manos del Espíritu.

El texto nos describe en detalle la manera como una persona se dirige de pronto a Jesús, revelándonos así la actitud espiritual de dicha persona: corre, al encuentro de Jesús, se arrodilla, ante Él, le pregunta, y se dirige a Él como Maestro bueno, esto es: siente la urgencia de discernir su propia vida, percibe que para ello necesita encontrarse con Jesús, adopta una posición de total humildad ante Él, busca tener un encuentro franco y directo; finalmente, le reconoce como el Maestro que puede aclarar su dilema existencial clave, ya que es bueno.

La reacción de Jesús al ser llamado bueno revela su papel mediador y su especial relación con el Padre. Jesús cuestiona el apelativo de bueno y lo atribuye exclusivamente al Padre, actualizando ante su interlocutor su radical amor a Dios como único centro de su existencia, e invitándole a hacer lo propio. ¿Quién, que haya tratado de ser franco y noble consigo mismo y con Jesús, no se siente reflejado en la búsqueda anhelante que revela la respuesta de la persona a la lista de preceptos que Jesús le acaba de enumerar? Sentimos que, aunque no resulte siempre fácil cumplir los preceptos, el hacerlo no es suficiente; presentimos que ellos son indicadores de algo mucho más importante que deseamos alcanzar.

Era batera edo bestera, bere buruari Ebanjelioaganako leialtasunari buruzko galdera egin dion nork ez du bere burua pasarte honetan islatuta ikusten? Kontakizun ebanjeliko gehienen antzera, hau ere gizatasun eta espiritualtasun sakoneko sentimendu eta jarrerak islatzeko gaitasun handia ematen dioten xehetasunek zeharkatzen dute. Kasu honetan eta beste behin, Espirituaren eskuetan bidean abiatzera doan Jesus dugu begien aurrean.

Bat-batean Jesusengana jotzen duen pertsona horren hurbilketaren ezaugarriez jabetzeak pertsona horren jarrera espiritualaren berri ematen digu: arineketan doa Jesusen bila, Honen aurrean belaunikatu egiten da, galdetu egiten dio, eta «Maisu ona» esaten dio, hau da: bere bizitza bereizteko premia sentitzen du, horretarako Jesusekin bat egin behar duela sumatzen du, erabateko apaltasunezko jarrera hartzen du Haren aurrean, elkarrizketa zintzo eta zuzena nahi du eta, azkenik, bere funtsezko dilema existentziala argi dezakeen Maisutzat aitortzen du, Jesus ona delako.

Jesusek «ona» esaten diotenean ematen duen erantzunak bere bitartekari-lana adierazten digu eta Aitarekin duen erlazio ona. Jesusek «ona» izengoitiari uko egiten dio eta Aitari bakarrik egozten dio, bere solaskidearen aurrean Jainkoarenganako erabateko maitasuna gaurkotuz eta bere bizitzako muintzat hartuz, eta solaskide horri gauza bera egiteko dei eginez. Ba ote dago bere buruarekin eta Jesusekin zintzo eta leial jokatzeko saiatu den inor, Jesusek banan-banan aipatu berri dizkion aginduen zerrendari emandako erantzunean antzematen den irrikaz beteriko bilaketan bere burua islatua ikusten ez duenik? Nahiz eta aginduak betetzea beti erraza ez izan, hori egitea ez dela nahiko sentitzen dugu; agindu horiek lortu nahi dugun zerbait garrantzitsuagoaren adierazgarri direla sumatzen dugu.

Es precisamente la nobleza de esa búsqueda anhelante la que, de pronto, toca el corazón de Jesús y le mueve a mirar fijamente, con cariño, a su interlocutor. El gesto, como en otras ocasiones en el Evangelio, muestra la hondura de su encarnación a través de su profunda humanidad. También muchos de nosotros hemos sentido su mirada penetrante en el pozo de nuestro corazón, hemos experimentado su amor y, por tanto, hemos escuchado su invitación: «Una cosa te falta: anda, vende lo que tienes, dale el dinero a los pobres, así tendrás un tesoro en el cielo, y luego sígueme». Y, por ello, nos sentimos plenamente reflejados en la tristeza y la falta de audacia del noble discípulo para dar el salto cualitativo que Jesús le demanda. El relato finaliza con un Jesús que, mirando a su alrededor, nos dice a todos los que queremos seguirle: «¡Qué difícil les va a ser a los ricos entrar en el reino de Dios!». Son palabras que nos invitan a meditar muy profundamente.

La cuestión planteada y la respuesta de Jesús nos afectan a todos: «Maestro bueno, ¿qué haré para heredar la vida eterna?». La pregunta no se refiere a qué debe hacerse para seguirle de manera especial, o, como se decía en la teología medieval y ha pervivido hasta el Vaticano II, para abrazar un modo de vida de mayor perfección, sino que se refiere a la condición misma para salvarse. Esto ayuda a comprender que no hay distintos grados de santidad entre el discipulado, sino sólo distintos modos, igualmente necesarios y válidos, de seguimiento, porque todos estamos llamados a la perfección de la santidad.

Irrikaz beteriko bilaketa horren zintzotasunak ukitzen du, hain zuzen ere, Jesusen bihotza, eta bere solaskidea adi-adi begiratzera eta maitatzera bultzatzen du. Zeinuak, Ebanjelioan beste batzuetan gertatzen denez, bere gizakundearen egiazkotasuna erakusten du, bere gizatasun sakonaren bidez. Gutariko askok ere sentitu izan dugu haren begirada sarkorra geure bihotz barruan, jaso izan dugu haren maitasunaren esperientzia eta, ondorioz, entzun izan dugu haren deia: «Gauza bat falta zaizu bakarrik: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri». Eta, horregatik, geure burua ikasle zintzoaren tristuran islatua ikusten dugu, eta Jesusek eskatzen dion jauzi kualitatiboa emateko ausardiaren faltan. Azkenean, Jesusek, ingurura begiratu eta ondorengoa diosku Berari jarraitu nahi diogun guztioi: «Bai nekez sartuko direla aberatsak Jainkoaren erreinuan!». Hausnarketa sakona egiteko hitz deigarriak dira.

Egindako galderak eta Jesusen erantzunak guztiongan dute eragina: «Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?». Galdetzen dena ez da, zer egin behar den Jesusi aparteko eran jarraitzeko, edo, Erdi Arotik Vatikanoko II. Kontziliara arte indarrean egon zen teologian esaten zenez, zer egin behar den santutasun handiagoko bizimodua nork bere egiteko; salbatzeko baldintzari buruz ari da. Honek zera ulertarazten digu: ikasleen artean ez dagoela santutasun-maila desberdinik, jarraitzeko bide desberdinak baizik, eta guztiak beharrezkoak eta baliozkoak direla; hain zuzen ere, denoi egiten zaigu santutasunaren bikaintasunera iristeko deia..

El texto nos muestra algo especialmente relevante para nuestra cultura y para todos los que estamos inmersos en ella: la invitación a tener un tesoro en el cielo. Dios es nuestro único tesoro verdadero y, por tanto, todo lo creado adquiere la condición de tesoro en cuanto está referido a Él. Si en vez de ese tesoro, nos fabricamos otros, cortando así nuestra relación esencial con la fuente de la vida, no podemos tener vida eterna. Sabemos por experiencia lo difícil que resulta liberarse de esos otros tesoros en una cultura que, por su fuerza, es como un río que nos arrastra. Por ello, vivir el Evangelio hoy tiene un notable componente contracultural. Mantenernos firmes en medio de la corriente nos exige generosidad, lucidez, apoyo comunitario y relación personal con Dios para contrastar, discernir, actuar y perseverar.

Esta actitud radical y primaria de tener nuestro tesoro en el cielo debe encontrar un reflejo práctico: obsesionados como estamos con la carrera del progreso y de la mejora de nuestro cada vez más alto nivel de vida, Jesús nos recuerda que no tenemos derecho a guardar nuestros bienes sólo para nosotros. Todo es de Dios y Dios nos llama con urgencia a compartir lo que tenemos con quienes pasan necesidad, para que todos tengamos un sitio en la mesa común de la creación.

¿Podemos celebrar la Eucaristía hoy sin sentir el aguijón de que al otro lado de la mesa del Señor de todos se sienta más de una mitad de la humanidad que pertenece a la «multitud de los desheredados», por los que Jesús sentía una conmovedora compasión? ¿Cómo conciliar esta escandalosa insolidaridad con las palabras de san Pablo acerca de la celebración de la Eucaristía, cuando escribía a la comunidad de Corinto:

Testuak gure kulturarentzat eta kultura horren barruan gauden guztiontzat bereziki nabarmena den zerbait aurkezten digu: aberastasuna zeruan izateko deia. Jainkoa da gure benetako altxor bakarra eta, ondorioz, sortutako guztia altxor da Hari lotuta badago. Altxor horren ordez beste batzuk egiten baditugu, biziaren iturri den funtsezko harremana moztuz, ezin dugu betiko bizirik izan. Esperientziaz dakigu, bere indarragatik arrastaka garamatzen erreka dirudien kultura honetan, zein zaila den beste altxor horietatik geure buruak askatzea. Horregatik, gaur egun Ebanjelioa bizitzeak osagai kontrakultural garrantzitsua du. Korrontearen erdian sendo irauteko, ezinbestekoak ditugu eskuzabaltasuna, argitasuna, elkarte-laguntza eta Jainkoarekiko harreman pertsonala, kontrastatzeko, bereizteko, jarduteko eta irauteko.

Gure aberastasuna zeruan izatearen jarrera erradikal eta oinarritzkoaren auzi honek isla praktiko bikoitza izan behar du. Geure aurrerapen sozial eta pertsonala erakusteko eta geure bizimaila gero eta altuagoa izateko irrikaz itsututa bizi garenoi, zera gogoratzen digu Jesusek: ez dugula eskubiderik, pobreak dauden bitartean, geure ondasunak geuretzat gordetzeko. Jainkoarena da guztia eta Jainkoak premiazko deia egiten digu, denok izan dezagun lekua guztiona den kreazioaren mahaian.

Erruki hunkigarria sentitzen zuen Jesusek behartsuen aurrean. Eta guk ospa al dezakegu Eukaristia gaur, guztion Jaunaren mahaiaren beste aldean gizateriaren erdia baino gehiago jartzen dela jakinik eta «behartsuen multzo» horrek guri inolako ziztadarik sentiarazi gabe? Nola adostu eskandalagarria den elkartasunik eza hori San Paulok Korintoko elkarteari Eukaristiaren ospakizunari buruz idazten zizkion hitzekin::

«Cuando os reunís, pues, en común, eso no es comer la cena del Señor; porque cada uno come primero su propia cena, y mientras uno pasa hambre, otro se embriaga»? (Primera Carta de san Pablo a los Corintios, capítulo 11, versículos 20-21).

No basta con la solidaridad distributiva dentro de nuestra propia sociedad, sino que esa solidaridad ha de extenderse a todas las personas creadas por Dios. Como individuos y como comunidad cristiana hemos de buscar los necesarios cauces prácticos a tal fin. Es urgente que nos preguntemos si no somos Epulones indiferentes ante los Lázarus del mundo, que gimen a nuestra puerta. También es preciso que aprendamos de tanta gente humilde entre nosotros, muchos de ellos pensionistas, que, como la viuda del Evangelio, entregan su óbolo, movidos por la caridad.

La invitación de Jesús tiene otra consecuencia práctica: si nuestros bienes nos separan de Dios y del prójimo, no son sino un impedimento para nuestra propia vida y felicidad, debiendo deshacernos de ellos para «viajar ligeros de equipaje». Esto nos lleva a tomar medidas para avanzar en otro rasgo del vivir el Evangelio que también resulta contracultural en una cultura de bienes y servicios cada vez más abundantes, complejos y sofisticados: la simplicidad de vida.

No se trata de rechazar por principio todo lo que signifique abundancia, complejidad y sofisticación, para volver a una especie de «vida natural» que nunca ha existido. No debemos olvidar que Dios creador fue el primer transformador del cielo y de la tierra creados por El. Así, en el primer momento tras su creación, según nos lo relata el Libro del Génesis, «la tierra era caos y confusión y oscuridad por encima del abismo».

«Zeuen elkarte-otorduetarako biltzen zaretenean, egiten duzuen ez da Jaunaren afaria, nor bere afaria jaten hasten baita; horrela, bata goseak gelditzen den bitartean, bestea mozkortu egiten da»? (San Pauloren lehenengo Gutuna Korintiarrei, 11. kapitulua, 20-21 txatalak).

Ez da nahikoa geure gizarte barruan gauzak banatzea dakarren elkartasuna; elkartasun horrek Jainkoak sortutako pertsona guztiengana iritsi behar du. Gizabanako eta kristauelkarte bezala, beharrezko bide eraginkorrak bilatu behar ditugu horretarako. Premiazkoa da geure buruari honako galdera hau egitea: ez ote gara Epulon axolagabeak gure ate aurrean zotinka dauden «Lazaroen» aurrean? Gure arteko hainbeste jende apalarengandik ere ikasi behar dugu; horietako asko eta asko pentsionistak dira, baina Ebanjelioko alargunaren antzera, beren limosna ematen dute karitateak eraginda.

Jesusen deiak badu beste ondorio praktiko bat ere: gure ondasunek Jainkoarengandik eta lagun hurkoarengandik apartatzen bagaituzte, eragozpena baino ez dira gure bizitza eta zorionerako, eta utzi egin behar ditugu «bidaia ekipaje arinarekin egiteko». Horretarako neurriak hartu behar ditugu, gero eta ugariagoa, konplexuagoa eta sofistikatuagoa den. ondasun eta zerbitzuen kulturaren kontrakulturala gertatzen den Ebanjelioa bizitzeko veste ezaugarri batean aurrera egiteko: bizitzako sinpletasuna

Kontua ez da, oparotasuna, konplexutasuna eta sofistiazioa adierazten duen guztiari printzipioz uko egitea, inoiz existitu ez den «bizitza natural» baten antzekora itzultzeko. Ez dugu ahaztu behar, Jainko kreatzailea izan zela Berak sortutako zero eta lurra aldatu zituen lehenengoa. Horrela, bere kreazioaren osteko lehenengo unean, Hasiera liburuak kontatzen digunez, «lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gain ilunpea».

Dios convirtió este caos en un cosmos, esto es, en algo ordenado, creando la luz, separando las aguas, creando el firmamento, las plantas, los animales, la maravilla del Jardín del Edén y, por fin, el género humano, como hombre y mujer.

Todos los santos y santas de la historia que han querido recuperar la simplicidad evangélica han seguido cultivando y transformando con amor el regalo de la creación, muchas veces con sus propias manos. Para san Benito, el trabajo manual del monje era fundamental, tanto práctica como humana y espiritualmente. Ello condujo a la Orden Benedictina a jugar un papel tecnológico y cultural de primer orden en Europa, entre los siglos VI-XIII. San Buenaventura nos refiere que el propio san Francisco de Asís, modelo de desprendimiento y sencillez, arregló las iglesias de san Damián, san Pedro y la Porciúncula, siguiendo el mandato del Señor de reparar su iglesia, casi en ruinas. Este hecho, de carácter espiritual, se manifestó en una acción física, aceptando y mejorando de ese modo la herencia recibida, al servicio de Dios.

No se trata, por tanto, de desertar de nuestra necesaria colaboración con la creación divina, para situarnos en una simplicidad falsa e inexistente. Somos y hemos de seguir siendo colaboradores del amor creador de Dios, pero no hasta el punto de convertirnos en prisioneros y esclavos de nuestras propias obras. La simplicidad es un requisito y un gran apoyo para la libertad de espíritu. La abundancia nos pesa, nos lastra y nos empobrece física, espiritual y creativamente. La saciedad, tan presente o tan buscada como actitud en nuestra sociedad de la satisfacción, simplemente nos mata en todos los sentidos.

Jainkoak kosmos bihurtu zuen nahas-mahas hori, hau da, zerbait ordenatua egin zuen, argia sortuz, urak bananduz, ortzia, landareak, abereak, Edeneko Baratze ederra eta, azkenik gizakia, gizon eta emakume bezala, sortuz.

Sinpletasun ebanjelikoan bizi nahi izan duten historiako gizon-emakume santu guztiek kreazioa maitasunez lantzen eta aldatzen jarraitu dute, askotan beraien eskuz, erregalu eman zaigun kreazioa. San Benitorentzat, monjearen eskulana guztiz garrantzitsua zen praktikan, eta giza eta espiritu-mailan. Hori dela eta, Beneditarren Ordenak zeresan handia izan zuen Europan, teknologi eta kultura-arloan, VI.-XIII. mendeetan. San Buenaventurak dioenez, eskuzabaltasun- eta bakuntasun-eredu izan zen Asisko San Frantziskok bere eskuz eraberritu zituen San Damian, San Pedro eta Protziunkula elizak, erortzeko zorian zegoen bere etxea konpontzeko Jainkoaren deiari erantzunez. Gertaera espiritual hau jarduera fisikoaren bidez adierazi zen, jasotako ondarea onartuz eta hobetuz, Jainkoaren zerbitzura.

Kontua ez da, beraz, kreazioan dugun ardua bertan behera uztea, geure burua existitzen ez den sinpletasun faltsuan kokatzeko. Jainkoaren maitasun sortzailearen laguntzaile gara eta izan behar dugu, baina ez geure egintzen gatibu eta esklabo bihurtzeraino. Espirituzko askatasunerako baldintza eta laguntza da sinpletasuna. Ugaritasunak zama jartzen digu, oztopatu egiten digu eta txirotu egiten gaitu fisikoki eta espirituari eta sormenari dagokienez. Atseginkeriaren gizarte honetan hain hedatuta dagoen edo hainbeste bilatzen den asetasunak hil egiten gaitu zentzu guztietan.

No es ni fácil ni sencillo dar pasos concretos en esta materia ni personal, ni familiar, ni socialmente, por lo que supone de renuncia y de navegar contra corriente. De ahí que el salto que nos pide Jesús, mirándonos fijamente y amándonos profundamente, nos entristezca y nos asuste. Por ello mismo resulta del todo imprescindible. En este punto como en muchos otros, vivir con la mirada puesta en nuestro tesoro del cielo, esto es en el Dios a la vez trascendente e íntimo, nos libera de cadenas y nos ayuda a ser más creativos.

Rito de reconciliación

El sacerdote:

Recordando la bondad de Dios, nuestro Padre, confesemos nuestros pecados, para alcanzar su misericordia y perdón. Digamos juntos:

Todos juntos dicen: Yo confieso...

Ahora, como comunidad santa y pecadora, pedimos perdón. a cada petición respondemos:

R/. Ten misericordia de nosotros, Señor (o bien: Kyrie eleison).

– Perdón Señor, porque muchas veces hemos olvidado que somos tus hijos y por olvidar que los demás son nuestros hermanos.

R/. Ten misericordia de nosotros, Señor (o bien: Kyrie eleison).

– Perdón Padre por adorar a los ídolos y por dejarnos vencer por la comodidad y el consumismo.

R/. Ten misericordia de nosotros, Señor (o bien: Kyrie eleison).

– Perdón Señor, por nuestra mediocridad, por nuestra falta de testimonio. Y porque no somos luz para los que buscan tu rostro.

R/. Ten misericordia de nosotros, Señor (o bien: Kyrie eleison).

Ez da ez erraza, ezta samurra ere, arlo honetan urratsak ematea, ez bakarka, ez familian ezta gizartean ere; uko egitea eta haize kontra ibiltzea eskatzen du horrek. Horregatik, Jesusek, adi-adi begiratzuz eta sakontasunez maitatuz, eskatzen digun urratsak goibeldu eta beldurtu egiten gaitu. Horrexegatik da, hain zuzen, ezinbestekoa. Puntu honetan, beste askotan bezala, zeruan dugun aberastasunari begira, hau da, traszendentea eta barnekoa den Jainkoari begira bizitzeak askatu egiten gaitu kateetatik eta indar sortzaileak pizten dizkigu.

Adiskidetzearen ohikunea

Apaizak

Aitaren onginahia gogoratzuz, aitor ditzagun gure bekatuak, bere errukia eta barkamena irits dezagun. Esan dezagun elkarrekin:

Guztiek esango dute: Aitortzen diot...

Orain, elkarte santu eta bekatarari garenez, eska dezagun barkamena, eskari bakoitzari erantzun diezaiozun: guzti hauek

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

– Barkatu, Jauna, askotan ahaztu egiten baitugu zure seme/alaba garelara baita besteak senide ditugula ere.

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

– Barkatu, Jauna, sasi-jainkoak gurtu eta erosotasunaren eta kontsumokeriaren morroi bihurtzen garelako.

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

– Barkatu, Jauna, erdipurdiko jokatzeko dugulako, behar bezalako testigantza eman beharrean. Ez garelako argi-emaile zure bila dabilzanentzat.

R/. Jauna, izan gutaz erruki (edota: Kyrie eleison.)

Confesión y absolución individual

Ahora se hacen las confesiones individuales.

Acción de gracias por la misericordia de Dios

Una vez concluidas las confesiones, el sacerdote que preside la celebración, teniendo junto a sí a los otros sacerdotes, invita a la acción de gracias y a la práctica de las buenas obras, con las que se manifiesta la gracia de la penitencia, tanto en la vida de cada uno como en la de la comunidad.

El sacerdote que preside termina con estas palabras:

El perdón supremo de Jesús ofrecido a quien lo ha crucificado nos muestra hasta dónde puede llegar la misericordia de Dios, la misma que acabamos de experimentar en el sacramento de la reconciliación. María atestigua que la misericordia del Hijo de Dios no conoce límites y alcanza a todos sin excluir a ninguno. Dirijamos a ella nuestro canto, para que nos haga dignos de contemplar el rostro de la misericordia, su Hijo Jesús.

Todos juntos cantan «Santa María del Amén» (CLN, n. 312).

Bendición

Banakako aitortza eta barkamena

Banakako aitortzak egingo dira une honetan.

Jainkoaren errukiarengatik eskerrak ematea

Aitortzak bukatuta, batzarburuak beste apaizak ere ondoan dituela, eskerrak emateko eta egintza egokiren bat egiteko deia luzatuko du, penitentziaren graziaren adierazgarri izango da hori bai norberaren bizitzarako bai elkarteko bizitzarako ere.

Apaizak hitz hauekin bukatuko du:

Gurutziltzatu zutenekin Jesusek izan zuen barkamen handiak agertzen digu noraino iristen den Jainkoaren errukia, guk geuk oraintxe adiskidetze sakramentuan gozatu duguna. Andre Mariak adierazten digu Jainkoaren Semearen errukiak ez duela mugarik eta inor baztertu gabe guztiongana iristen dela. Amari kantatuko diogu orain, errukiaren aurpegia den Jesus Jauna ikusteko gai egin gaitzan eskatuz.

Denek kantatuko dute «Egizu, zuk, Maria... Bekatariok ama».

Bedeinkapena